

**EUSKARA SUSTATZEARI  
ESKAINITAKO AURREKONTU  
PUBLIKO, DIRU-LAGUNTZA ETA  
GIZA BALIABIDEEN AZTERKETA**  
(Euskal Autonomia Erkidegoa, 2010)

Donostia, 2012ko maiatza.



# AURKIBIDEA

0.- SARRERA .....	5
1.- <u>IKERKETA-EREMUA ETA ARGIBIDE METODOLOGIKOAK</u> .....	8
1.1.- AZTERKETAREN UNIBERTSOA ETA JASOTAKO INFORMAZIOA .....	9
1.2.- IKERLANERAKO ERABILITAKO PROZEDURA .....	11
1.3.- OHAR METODOLOGIKOAK .....	12
2.- <u>EAEko ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN 2010eko EUSKARA</u> <u>AURREKONTUAK</u> .....	13
2.1.- EUSKARA AURREKONTUAK: 2010eko DATU OROKORRAK ETA BILAKAERA .....	14
2.1.1.- EAEko erakunde publikoak orotara .....	14
2.1.2.- Eusko Jaurlaritza .....	20
2.1.3.- Foru Aldundiak .....	24
2.1.4.- 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak .....	27
2.1.5.- Hiriburuak .....	30
2.2.- EUSKARAREN SUSTAPENERAKO SAIL ETA ERAKUNDE ARTEKO DIRU TRANSFERENTZIAK .....	33
2.3.- EUSKARAREN AURREKONTUAK BIZTANLEKO .....	38
2.3.1.- Erakunde-motari jarraiki .....	38
2.3.2.- Udalerrien eremu soziolinguistikoari jarraiki .....	44
3.- <u>EUSKARA AURREKONTUEN KAPITULUKAKO AZTERKETA</u> .....	46
3.1.- EAEko ERAKUNDE PUBLIKOEN EUSKARA AURREKONTUAK, KAPITULUEI JARRAIKI .....	47
3.2.- AURREKONTUEN KAPITULUKAKO AZTERKETA, ERAKUNDE-MOTARI JARRAIKI .....	49
3.3.- EUSKARA SUSTATZEKO AURREKONTUEN BILAKAERA, KAPITULU EKONOMIKOEI JARRAIKI .....	52



<b>4.- EUSKARA AURREKONTUAK HIZKUNTZA NORMALKUNTZA EREMUEI</b>	
<b><u>JARRAIKI</u></b> .....	55
4.1.- EUSKARA AURREKONTUEN BANAKETA EBPNko HELBURU ETA NORMALKUNTZA EREMUEI JARRAIKI.....	56
4.2.- EUSKO JAURLARITZA NORMALKUNTZA EREMUEI JARRAIKI .....	65
4.3.- FORU ALDUNDIAK NORMALKUNTZA EREMUEI JARRAIKI .....	67
4.4.- UDALAK NORMALKUNTZA EREMUEI JARRAIKI .....	70
4.5.- HIRIBURUAK NORMALKUNTZA EREMUEI JARRAIKI .....	73
4.6.- EUSKARA AURREKONTUEN BIZTANLEKO BANAKETA, EREMUARI JARRAIKI.....	76
4.7.- EREMUKAKO AURREKONTUEN BILAKAERA (2006-2010) .....	80
4.8.- NORMALKUNTZA EREMUKAKO AURREKONTUEN BANAKETA EREMU SOZIOLINGUISTIKOARI JARRAIKI .....	85
<b>5.- EUSKARA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMENEN</b>	
<b><u>AZTERKETA</u></b> .....	88
5.1.- DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMENEN AURREKONTU OSOA .....	89
5.2.- DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMENAK ERAKUNDE MOTARI JARRAIKI .....	92
5.3.- DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMENAK UDALERRIEN EREMU SOZIOLINGUISTIKOARI JARRAIKI .....	94
5.4.- AURREKONTURIK HANDIENEN DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMEN MOTAK .....	95
5.5.- DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMENAK EREMUARI JARRAIKI.....	108
5.5.1.- EBPNko helburu orokorrei jarraiki .....	108
5.5.2.- Euskalduntze-alfabetatzea .....	110
5.5.3.- Administrazioa .....	110
5.5.4.- Irakaskuntza .....	111
5.5.5.- Hedabideak .....	112
5.5.6.- Diru-laguntza eta hitzarmen orokorrak .....	113
5.5.7.- Teknologia berriak.....	114
5.5.8.- Euskararen corpusa eta kalitatea.....	114
5.5.9.- Lan arloa .....	115
5.5.10.- Kulturgintza .....	115
5.5.11.- Liburugintza.....	116
5.5.12.- Aisia, kirola eta erlijioa .....	116
5.5.13.- Familia bidezko jarraipena.....	117
5.5.14.- Publizitatea .....	117



5.6.- JAURLARITZAKO SAIL, FORU ALDUNDI ETA HIRIBURUETAKO UDALEN DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMENAK .....	122
5.7.- DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMENAK BIZTANLEKO, EREMUARI ETA ERAKUNDE-MOTARI JARRAIKI.....	132
5.8.- DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMENAK GASTU MOTARI JARRAIKI .....	134
<b>6.- HIZKUNTZ NORMALKUNTZARAKO EGITURAK ETA GIZA BALIABIDEAK.....</b>	<b>140</b>
6.1.- HIZKUNTZA NORMALKUNTZAKO EGITURAK .....	141
6.2.- GIZA BALIABIDEAK LANPOSTU ETA KONTRATU MOTARI JARRAIKI.....	144
6.3.- GIZA BALIABIDEAK ERAKUNDE MOTARI JARRAIKI .....	149
6.4.- GIZA BALIABIDEEN LAN KATEGORIA.....	155
<b>7.- FINANTZAKETA MODUA.....</b>	<b>158</b>
7.1.- EUSKARAREN SUSTAPENERAKO SAIL ETA ERAKUNDE ARTEKO DIRU-TRANSFERENTZIAK.....	159
7.2.- DIRU-SARRERAK ERAKUNDE MOTARI JARRAIKI .....	160



0.

SARRERA



Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek, euskararen sustapenerako erabilitako, diru baliabide, emandako diru-laguntza eta euskararen normalizazio lanetan ari diren giza baliabideei buruzko ikerlana da hau. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz Siadecok egina. Txosten honek biltzen ditu egindako azterlanaren emaitza eta datu nagusienak.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bi urtez behin egiten du euskara aurrekontu publikoen ikerlan hau, lehendabiziko aldiz 2002an egin zen, beraz bosgarren neurketa aldia izan da 2010eko datuekin egindako azken hau.

Ikerketa lanerako unibertsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko 5.000 biztanlez gorako udalerrri guztietako udalek, hiru lurraldeetako foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomo guztiek osatu dute. Erakunde guztiek erantzun dute eta hutsunerik bat ere izan gabe, landa-laneko unibertso osoari dagozkion datuekin egina dago 2010eko euskara baliabide publikoen estatistika hau.

Ikerlanak honako helburuok ditu:

- 1.- Hizkuntza normalkuntzari dagozkion datu ekonomikoak ezagutzea, alegia, EAEko administrazio publikoak euskararen sustapenerako urtean zenbat diru erabiltzen duen jakitea.
- 2.- 2002. urteaz geroztik, euskara aurrekontuek izan duten bilakaeraren azterketa egitea.
- 3.- Euskara sustatzeko diru baliabideak nola banatzen diren jakitea: bai kapitulu ekonomikoei jarraiki eta baita normalizazio eremu bakoitzean izan duten banaketari jarraiki (euskalduntze alfabetatzea, administrazioa, lan-arloa, ...).
- 4.- Euskara sustatzeko herri administrazio bakoitzak dituen hitzarmen eta ematen dituen diru-laguntzei buruzko informazio xehea ezagutzea.
- 5.- Euskararen normalizazioa helburu izanik, euskara zerbitzu, euskara atal eta administrazio publikoaren bestelako egituretan zenbat lagunek lan egiten duten jakitea.



Txostenaren ondoko atal nagusiei jarraiki egituratua dago:

- 1.- Ikerketa-eremua eta argibide metodologikoak.
- 2.- EAEko administrazio publikoaren 2010eko euskara aurrekontuak.
- 3.- Euskara aurrekontuen kapitulukako azterketa.
- 4.- Euskara aurrekontuak hizkuntza normalkuntzako eremuei jarraiki.
- 5.- Euskara sustatzeko diru-laguntza eta hitzarmenak.
- 6.- Euskararen sustapenerako egiturak eta giza baliabideak.
- 7.- Finantzaketa modua.

2010eko estatistika egiteko jasotako informazioari dagokionean, metodologikoki azken 3 edizioetan erabilitako irizpide bertsuak erabili dira; izan ere, 2006. urteaz geroztik, erakundeetako aurrekontu likidatuekin lan egin da; 2002 eta 2004 urteetako datuak ordea, aurrekontu onartuekin kalkulaturakoak dira. Aurrekontuak normalizazio eremuei jarraiki sailkatzerakoan berriz, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak bereizten dituen eremuak hartu dira kontuan.

Ikerlanaren txosten nagusi honez gain, eranskinen txostena, azterketaren datu nagusienak biltzen dituen txosten exekutiboa, eta jasotako informazio guztiaren datu-oinarria ere landu dira.



1.

# IKERKETA-EREMUA ETA ARGIBIDE METODOLOGIKOAK





## I.1.- AZTERKETAREN UNIBERTSOA ETA JASOTAKO INFORMAZIOA

Sarreran esan bezala, hizkuntza normalkuntza eta euskararen sustapenerako diru baliabide, diru-laguntza/hitzarmen eta giza baliabideen ikerlan hau, EAEko 5.000 biztanlez gorako udalerrietara, hiru foru aldundietara eta Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomoetara zabaldu da.

Erakundeek eskatutako datuak honakoak izan dira:

- A.- Erakundearen datu orokorrak eta euskara sustatzeko departamentu, arlo edota zerbitzuaren datuak.
- B.- 2010eko aurrekontuen datu orokorrak: aurrekontu propio likidatua eta euskara sustatzeko erabilitako aurrekontu likidatua.
- C.- 2010eko aurrekontu propioak eta euskararen sustapenerako aurrekontuak, kapitulu ekonomikoei jarraiki.
- D.- Euskara sustatzeko 2010eko aurrekontuak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiko eremuei jarraiki.
- E.- Erakundearen 2010eko diru-laguntza eta hitzarmen-motak eta zenbateko ekonomikoak, EBPNko eremuen arabera.
- F.- Euskara sustatzeko atalaren egitura eta euskarari eskainitako giza baliabideei buruzko informazioa: lanpostu kopurua, lanpostu-mota, kontratu-mota eta lan kategoria.
- G.- Euskarari dagozkion diru sarrerak: berezko sarrerak (tasak, matrikulak,...) edota beste erakundeetatik jasotakoak.



Orotara beraz 89 erakundek hartu dute parte; 5.000 biztanlez gorako udalerrietako 66 udal, hiru hiriburuak, 3 foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomo guztiak (17 guztira).

Orotara, (hiriburuak barne) 5.000 biztanlez gorako udalerrietan 1.947.498 pertsona bizi dira, hots, EAEko biztanleria osoaren % 89,8.

I. Taula: Azterketaren unibertsoa, erakunde-mota eta udalerrien tamainari jarraiki

Erakunde-mota	Erakunde kopurua	Biztanleria
<b>Udalak</b>	<b>69</b>	<b>1.947.498</b>
5.000-10.000 biztanle	28	201.936
10.000-20.000 biztanle	23	338.315
20.000 biztanle baino gehiago (hiriburuak salbu)	15	630.307
Hiriburuak	3	776.940
<b>Foru Aldundiak</b>	<b>3</b>	<b>2.169.038</b>
<b>Eusko Jaurlaritza</b>	<b>17</b>	<b>2.169.038</b>
Sailak	11	
Erakunde autonomoak	6	
<b>GUZTIRA</b>	<b>89</b>	

Iturria: Siadeco, 2011; Eustat, 2010.



## 1.2.- IKERLANERAKO ERABILITAKO PROZEDURA

Erakundeetako informazioa, galdetegi egituratu bat erabiliz jaso da. Erakundeek galdetegiarri paper euskarrian edo telematikoki erantzuteko aukera izan dute.

Eskatutako informazioa erakunde bakoitzean bildu eta galdetegiarri erantzuten aritu direnak, Siadecoko lan-taldearekin kolaboratu duten herri administrazioetako informazio emaileak, oro har, euskara arlo edo zerbitzuetako teknikariak izan dira, kontu-hartzaile eta administrarien laguntzarekin.

Landa-lanean egindako ahalegin handiari esker, unibertso osoko datuak jasotzea lortu da, erakunde guztiek ikerketa honetan parte hartzea alegia. Hori hala izateko, landa-lana 16 astez luzatu beharra izan da.

Ikerlana egiteko urrats nagusienak honakoak izan dira:

- I. Galdetegen diseinua (euskarri digitalean eta paperean).
- II. Unibertsoa definitu eta ikerlanaren aurkezpen-gutunak erakundeetara bidali.
- III. Landa-lana abian jarri eta jarraipen lana egin.
- IV. Jasotako informazioaren ikuskatze, kontraste eta osatze lanak.
- V. Galdetegietako informazioaren arazketa.
- VI. Aurrekontuen erakunde arteko kontsolidazioa egin, euskara aurrekontu bateratuak kalkulatu eta datuen ustiaketa estatistikoa egin.
- VII. Informazioaren irakurketa egin eta azterlanaren txosten nagusia, eranskinen txostena eta datu-oinarria prestatu.



## 1.3.- OHAR METODOLOGIKOAK

Txosten honetan ageri diren taula eta grafikoetako datuen irakurketa egiterakoan kontuan hartu beharreko ohar metodologikoak:

- 1.- Euskara aurrekontuen kopuru absolutu nahiz portzentaia erlatiboan bilakaeraren azterketa egiterakoan, aurrekontu likidatuak dirak azken hiru neurketa aldiak (2010, 2008 eta 2006 ekitaldiak), baina erakundearen aurrekontu onartuekin kalkulatuak 2002 eta 2004koak.
- 2.- 2008ko edizioan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, aurreikusitako aurrekontuak eta likidatuak igorri zituen: likidatuak ziren HUISen egoitza nagusian, Ordezkaritzetan, Berritzeguneetan, ikastetxeetan, etab. lanean zebiltzan pertsonen gastuak (12,3 milioi euro), eta aurreikusitakoak aldiz Irale programaren barneko pertsonal gastuak (29,5 milioi euro). Guztira beraz 41,9 milioi euro lehen kapituluak (pertsonal gastuak), eta orotara 53,6 milioi euskara sustatzeari eskainitakoa. Aurten "47150" programaren (hezkuntza sistemaren euskalduntzea) likidatuak aurrekontuak helarazi dituzte (27,4 milioi guztira), eta horrek alderaketa egiteko garaian, erreal ez den alde izugarria eragiten du. Honen aurrean, eta alderaketa errealagoa izate aldera, 2008an HUISek berak emandako datuen ordez, "47150" programarako urte horretan likidatuak aurrekontua (32,7 milioi) erabili dugu eta aldaketa horrek, HUISeko datuetan soilik ez, Eusko Jaurlaritzaren eta EAEko datu orokorretan ere eragiten du. Horixe da, 2008. urtean entregatuak txostenean agertzen diren datuen eta orain bilakaera aztertzeko garaian erabilitakoen artean dagoen diferentziaren arrazoia.
- 3.- Euskaltegien izaera publikoa edo pribatuaren arabera, udalek euskaltegiarako ipintzen dituzten aurrekontuak kontabilizatzeko modua desberdina da, kontabilitate publikoko kapitulu ekonomikoek jarraiki. Eragin hori saihestu eta analizarako irizpideak bateratze aldera, euskaltegi publikoa duten udalerrietako udaletako aurrekontu propioko kapituluetatik euskaltegiari dagozkion kopuruak kendu egin dira (pertsonal gastuak, zerbitzu kontratazioa,...) eta udalak finantzatzen duen zatia bakarrik kontuan hartu eta 4. kapitulu ekonomikoan erantsi da (udalak berak finantzatu eta euskaltegiari egiten dion transferentzia modura kontsideratuz). Ondorioz, euskaltegi publikoaren aurrekontuak udalaren aurrekontu propioan sartuak dauden kasuetan, aldeak daude azterlan honetarako kontsideratuak kopuruen eta udalek kontabilizatuak dituzten kopuruen artean. Ondorengoak dira kasu horiek: Arrasate, Erandio, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Oñati, Portugalete, Sestao, Sopelana, Tolosa, Trapagaran eta Zarautz.
- 4.- Euskara aurrekontuen 2010eko azterlan honetan, bi udal berri sartu dira, 5.000 biztanleko muga gainditu dutelako, Gipuzkoako bi udalerrak: Orio eta Mutriku.



2.

## EAEko ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN 2010eko EUSKARA AURREKONTUAK



## 2.1.- EUSKARA AURREKONTUAK: 2010eko DATU OROKORRAK ETA BILAKAERA

### 2.1.1.- EAEko ERAKUNDE PUBLIKOAK OROTARA

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek orotara, 156,5 milioi euro ipini dituzte 2010. urtean euskararen normalizaziorako, hots, "euskararen normalizazio eta sustapena helburu duten zuzeneko ekintza eta baliabideetarako". Horietatik, 100,5 milioi euro (%64,2) Eusko Jaurlaritzari dagozkio, 29,3 milioi, 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalei (%18,7), 8,5 milioi hiriburuei (%5,4) eta 18,1 milioi foru aldundiei (%11,6).

Aurrekontu horiek, erakunde arteko diru-transferentziek eragindako kopuru bikoizketak kenduta kalkulatu dira eta aurrekontu bateratua kontzeptua erabili dugu EAEko herri administrazio guztiei dagokien bikoizketarik gabeko aurrekontu hori azaltzeko; alegia, Eusko Jaurlaritzatik nahiz foru aldundietatik udaletara, euskararen normalizazioa sustatzeko transferitutako diru kopuruak kenduta kalkulaturakoa. Erakunde bereko sail edo bere menpeko erakunde autonomoen arteko transferentziak kenduta kalkulaturako aurrekontuari berriz "euskara aurrekontu neto edo garbi orokorra" deituko diogu.

Udalen kasuan, haiek euskara sustatzeko likidatu duten aurrekontu osoari "euskara aurrekontu likidatua" deitu diogu eta aurrekontu likidatu horretan aldundietatik eta Eusko Jaurlaritzatik euskararen sustapenerako jasotako transferentziak sartuak egongo lirake. 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalek (hiriburuak kanpo) beren aurrekontu "netotik" euskara sustatzeko 29,3 milioi erabili dituztela esan dugu, baina beraiek euskara aurrekontuetan likidaturako kopurua guztira 31,7 milioi eurokoa da (beraien aurrekontu propioari zegokiona, gehi Eusko Jaurlaritzatik eta foru aldundietatik euskararen normalizaziorako jasotako transferentzietatik dagokiena). Hiriburuen kasuan, aurrekontu "neto" hori 8,5 milioi euro izatetik, likidaturako 9,0 milioi euro izatera pasatzen da.


Honela bada, euskararen normalizaziorako erabilitako "aurrekontu bateratuaz" ari garenean 156,5 milioi euroz arituko garen bezala, datuak erakunde-motari jarraiki aztertzen ditugunean (bai kapituluko azterketa egiterakoan nola EBPnko eremuen arabera egiterakoan), aurrekontu likidatuekin egingo dugu lan (alegia 159,4 milioirekin).



2. Taula: EAEko 2010eko euskara aurrekontu bateratua, erakunde arteko diru-transferentziak eta aurrekontu likidatuak, erakunde-motari jarraiki

ERAKUNDE-MOTA	Erakundekako euskara aurrekontu NETOA eta EAEko aurrekontu BATERATUA		Erakunde arteko transferentziak €	Euskara aurrekontu LIKIDATUA guztira	
	€	%		€	%
Eusko Jaurlaritza	100.548.845	64,2	-	100.548.845	63,1
Foru Aldundiak	18.131.469	11,6	-	18.131.469	11,4
5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak	29.340.118	18,7	2.384.971	31.725.090	19,9
Hiriburuak	8.494.986	5,4	536.353	9.031.339	5,7
<b>GUZTIRA EAE</b>	<b>156.515.417</b>	<b>100,0</b>	<b>2.921.325</b>	<b>159.436.742</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2011.





Aurrekontu osoaren eta euskara aurrekontuaren azken urteetako bilakaeraren emaitza nagusiak ditugu hurrengo orriko taulan, eta daturik esanguratsuenak honakoak:

- 2010. urtean, herri administrazioek euskarari eskainitako aurrekontua (156,5 milioi euro), bere aurrekontu osoaren %0,95 da.
- Kopuru absolutuetan nahiz ehunekoetan, euskara aurrekontuak behera egin du 2008. urtekoarekiko: 10 milioi euro gutxiago kopuru absolutuetan eta %13.56 gutxiago aurrekontu osoarekiko duen pisuan.
- Euskara aurrekontuen azterketa egiten hasi zenetik (2002. urtea), bilakaera diferentea izan dute administrazio publikoen aurrekontu osoek eta euskara aurrekontuek. Izan ere, aurrekontu osoek goranzko joera argia izan duten bezala (2004-2008. urteen artean batik bat), euskara aurrekontuek nabarmen igoera apalagoa izan dute. Hori dela eta, euskara aurrekontuaren indizea (aurrekontu osoarekiko duen pisua, alegia), 2004. urteaz geroztik apurka-apurka jaisten joan da, eta 2010. urtekoa, orain arteko baxuena da (%0,95).

Erakunde-motari jarraiki, eta beti ere euskara aurrekontuak erakundearen aurrekontu osoarekiko duen pisuari erreparatuta, euskarari proportzionalki baliabide gehien eskaintzen diotenak, hiriburuak ez diren 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak dira: %1,90. Nabarmen beherago datoz gainerako erakundeak: Eusko Jaurlaritzak bere aurrekontu osoaren %0.97 eskaintzen dio, hiriburuek %0,66 eta foru aldundiek %0,58.

2008. urtetik hona, aurrekontu osoarekiko pisua, erakunde mota guztietan galdu dute euskara aurrekontuek (jaitsierarik handiena Eusko Jaurlaritzan eta foru aldundietan eman bada ere), eta kopuru absolutuetan, hiriburuak izan dira gora egin duten bakarrak.





## 3. Taula: Erakundeen aurrekontu osoaren eta euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2002-2010), erakunde-motari jarraiki

ERAKUNDE-MOTA	Urtea	Erakundeen aurrekontu osoa		Euskara aurrekontua		[Euskara aurrekontua/Aurrekontu osoa] ratioa	
		€	% Δ	€	% Δ	Ratioa (%)	%Δ
Eusko Jaurlaritza (sail arteko diru transferentziak kenduta)	2002	5.971.406.505		94.018.669		1,57	
	2004	6.185.000.000	3,58	105.171.877	11,86	1,70	8,00
	2006	7.770.938.413	25,64	106.074.632	0,86	1,37	-19,73
	2008	9.317.300.321	19,90	109.671.797	3,39	1,18	-13,77
	2010	<b>10.327.556.416</b>	<b>10,84</b>	<b>100.548.845</b>	<b>-8,32</b>	<b>0,97</b>	<b>-17,29</b>
Foru Aldundiak	2002	1.747.026.817		11.836.109		0,68	
	2004	2.064.699.668	18,18	15.645.334	32,18	0,76	11,85
	2006	2.505.421.545	21,35	15.961.175	2,02	0,64	-15,93
	2008	3.005.037.376	19,94	19.926.465	24,84	0,66	4,09
	2010	<b>3.121.722.809</b>	<b>3,88</b>	<b>18.131.469</b>	<b>-9,01</b>	<b>0,58</b>	<b>-12,41</b>
5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak	2002	1.032.231.095		19.816.294		1,92	
	2004	1.196.293.257	15,89	24.763.995	24,97	2,07	7,83
	2006	1.464.583.885	22,43	27.712.866	11,91	1,89	-8,59
	2008	1.630.816.711	11,35	33.644.477	21,40	2,06	9,03
	2010	<b>1.669.049.133</b>	<b>2,34</b>	<b>31.725.090</b>	<b>-5,70</b>	<b>1,90</b>	<b>-7,86</b>
Hiriburuak	2002	758.041.654		4.580.903		0,60	
	2004	885.081.402	16,76	5.826.286	27,19	0,66	8,93
	2006	1.023.269.625	15,61	7.060.244	21,18	0,69	4,81
	2008	1.222.722.235	19,49	8.493.684	20,30	0,69	0,68
	2010	<b>1.361.333.119</b>	<b>11,34</b>	<b>9.031.339</b>	<b>6,33</b>	<b>0,66</b>	<b>-4,50</b>
EAEko aurrekontu LIKIDATUA GUZTIRA (erakunde arteko transferentziak kendu gabe)	2002	9.508.706.072		130.251.976		1,37	
	2004	10.331.074.327	8,65	158.843.677	21,95	1,54	12,24
	2006	12.764.213.468	23,55	170.134.973	7,11	1,33	-13,31
	2008	15.175.876.643	18,89	171.736.423	0,94	1,13	-15,10
	2010	<b>16.479.661.477</b>	<b>8,59</b>	<b>159.436.743</b>	<b>-7,16</b>	<b>0,97</b>	<b>-14,51</b>
EAEko aurrekontu BATERATUA (erakunde arteko transferentziak kenduta)	2002	9.508.706.072		128.466.970		1,35	
	2004	10.331.074.327	8,65	148.478.984	15,58	1,44	6,38
	2006	12.764.213.468	23,55	152.837.887	2,94	1,20	-16,69
	2008	15.175.876.643	18,89	166.744.243	9,10	1,10	-8,24
	2010	<b>16.479.661.477</b>	<b>8,59</b>	<b>156.515.417</b>	<b>-6,13</b>	<b>0,95</b>	<b>-13,56</b>

Iturria: Siadeco, 2011 (2002 eta 2004 aurrekontu onartuak, 2006tik aurrera aurrekontu likidatuak).




4. Taula: Erakundearen aurrekontu osoaren eta euskara aurrekontuaren bilakaera portzentuala (2002-2010) eta akumulatua (2002. urtea oinarri hartuta)

ERAKUNDE-MOTA	Urtea	Aurrekontu osoaren bilakaera	Euskara aurrekontuaren bilakaera	[Euskara aurrekontua/ Aurrekontu osoa] indizea
		% Δ	% Δ	Indizea (%)
Eusko Jaurlaritza (sail arteko diru transferentziak kenduta)	2002tik 2004ra	3,58	11,86	1,70
	2004tik 2006ra	25,64	0,86	1,37
	2006tik 2008ra	19,90	3,39	1,18
	2008tik 2010era	10,84	-8,32	0,97
	Batez bestekoa	14,99	1,95	1,36
	Akumulatua	72,95	6,95	
Foru Aldundiak	2002tik 2004ra	18,18	32,18	0,76
	2004tik 2006ra	21,35	2,02	0,64
	2006tik 2008ra	19,94	24,84	0,66
	2008tik 2010era	3,88	-9,01	0,58
	Batez bestekoa	15,84	12,51	0,66
	Akumulatua	78,69	53,19	
5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak	2002tik 2004ra	15,89	24,97	2,07
	2004tik 2006ra	22,43	11,91	1,89
	2006tik 2008ra	11,35	21,40	2,06
	2008tik 2010era	2,34	-5,70	1,90
	Batez bestekoa	13,00	13,14	1,97
	Akumulatua	61,69	60,10	
Hiriburuak	2002tik 2004ra	16,76	27,19	0,66
	2004tik 2006ra	15,61	21,18	0,69
	2006tik 2008ra	19,49	20,30	0,69
	2008tik 2010era	11,34	6,33	0,66
	Batez bestekoa	15,80	18,75	0,66
	Akumulatua	79,59	97,15	
EAEko aurrekontua GUZTIRA (erakunde arteko transferentziak kendu gabe)	2002tik 2004ra	8,65	21,95	1,54
	2004tik 2006ra	23,55	7,11	1,33
	2006tik 2008ra	18,89	0,94	1,13
	2008tik 2010era	8,59	-7,16	0,97
	Batez bestekoa	14,92	5,71	1,27
	Akumulatua	73,31	22,41	
EAEko aurrekontu BATERATUA (erakunde arteko transferentziak kenduta)	2002tik 2004ra	8,65	15,58	1,44
	2004tik 2006ra	23,55	2,94	1,20
	2006tik 2008ra	18,89	9,10	1,10
	2008tik 2010era	8,59	-6,13	0,95
	Batez bestekoa	14,92	5,37	1,21
	Akumulatua	73,31	21,83	

Iturria: Siadeco, 2011.




2. Grafikoa: Euskara aurrekontu likidatuen bilakaera (2002-2010), erakunde-motari jarraiki (milioi €)




Iturria: Siadeco, 2011.

3. Grafikoa: 2002-2010 aldian EAEko administrazio publikoko aurrekontu orokorrek eta euskara aurrekontuek izandako bilakaera (igoera akumulatua, oinarria 2002, urtea)



Iturria: Siadeco, 2011.

#### 4. Grafikoa: Erakundeen aurrekontu osoarekiko euskara aurrekontu likidatuaren pisu erlatiboaren bilakaera (2002-2010), erakunde-motari jarraiki



Iturria: Siadeco, 2011.

### 2.1.2.- EUSKO JAURLARITZA

2008ko ikerlanean bezala, oraingoaren ere, Eusko Jaurlaritzaren sail eta erakunde autonomo guztiak hartu dira kontuan. Eusko Jaurlaritzaren egituraketa bera ordea, aldatu egin da 2008kotik 2010ekora. Jarraian agertzen den taulan, 2008. urtean aztertutako sail eta erakunde euskara aurrekontua, eta 2010. urtean aztertutakoena alderatzen da.

Euskara aurrekontuetan, ez bairik gabe, pisurik handiena Kultura Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dute:



- Kultura Sailak, 55,8 milioi euro eskaini dizkio euskararen sustapen eta normalizazioari, orain 2 urte baino zertxobait gutxiago (%1,4 gutxiago).
- HUISek aldiz, 27,3 milioi euroko aurrekontu likidatua izan du, 2008an baino %16,4 gutxiago.
- Bi edizioetan egitura bera mantendu duten sailen artean, bi dira 2010ean euskarari aurrekontu altuagoa eskaini diotenak: Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak 189,8 mila euro eskaini dizkio (%17,1 gehiago), eta Lehendakartzak 136,7 mila euro (%37,1 gehiago).
- Herrizaingo Sailak aurrekontu bera eskaini diola esan genezake (106,8 mila euro) eta Osasun eta Kontsumo Sailak berriz, 195,3 mila euro eskainita, %17,1 gutxiago.

Eusko Jaurlaritzako gainerako sailen euskara aurrekontua, orotara, 14,5 milioi eurokoa da; horietako gehien gehiena Justizia eta Herri Administrazio Sailari dagokio (13,7 milioi, gero HAEE/IVAPera transferituko dena). Kopuru hori, bi urte lehenago, Eusko Jaurlaritzaren gainerako sailei zegokiena baino 5,3 milioi baxuagoa da (%26,8 gutxiago, beraz).

Ertzaintzaren euskara aurrekontua ia erdira jaitsi da bi urtetan; 1.495,0 mila eurotik, 797,8 milara pasa baita (%46,8 gutxiago). Izan ere Arkaute EHPI/APPVn euskara irakasleak azpikontratatzeko partidak nabarmen egin du behera, eta apenas izan da euskara ikasleen ordezkapen gasturik.

Erakunde autonomoi dagokionez, bi dira euskara aurrekontu handia dutenak: HABE eta HAEE/IVAP: HABEk 43,3 milioiko aurrekontua izan du 2010ean (2008an baino %5,3 gehiago), eta HAEE/IVAPek 13,1 milioikoa (bi urte lehenago baino %7,0 gutxiago).

Gainerako erakunde autonomoetan, kopuruak askoz ere apalagoak izanik, (61,5 eta 96,8 mila euro artekoa) aipatzekoa da Emakundekoaren beherakada (%33,7).



Orotara beraz, Eusko Jaurlaritzaren euskara aurrekontua 100,5 milioi eurokoa da, 2008. urtean baino 9 milioi gutxiago (%8,3 baxuagoa): Horietatik 5 milioi pasa Hezkuntza Sailari dagozkie, ia 1 milioi HAEE/IVAPI, 775 mila Kultura Sailari eta 700 mila euro Ertzaintzari.


5.Taula: Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomoetako euskara aurrekontuen bilakaera (2008-2010)

	Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeak 2008 eta 2010. urteetan				
	2008		2010		%Δ
	Erakundea	Euskara aurrekontua	Erakundea	Euskara aurrekontua	
Berdin mantentzen diren Sailak	Lehendakaritza .....	99.770	Lehendakaritza .....	136.742,88	37,1
	Herrizaingo Saila .....	106.837	Herrizaingo Saila .....	106.709,47	-0,1
	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila .....	32.718.633	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila .....	27.368.522,90	-16,4
	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila .....	162.183	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila ....	189.865,06	17,1
	Kultura Saila .....	56.598.909	Kultura Saila .....	55.823.726,82	-1,4
	Osasun eta Kontsumo Saila .....	235.466	Osasun eta Kontsumo Saila .....	195.269,00	-17,1
	2010ean berriak diren Sailak			Ekonomia eta Ogasun Saila .....	104.085,31
			Justizia eta Herri Administrazio Saila .....	13.745.732,18	
			Enplegu eta Gizarte Gaiak Saila ...	260.175,08	
			Etxebizitza, Garraio eta Herri Lan Saila .....	192.321,51	
			Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Saila .....	255.953,93	
2010an ez dauden Sailak	Ogasun eta Herri Administrazio Saila	16.251.565			
	Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila	3.369.393			
	Garraio eta Herri Lan Saila	150.187			
	Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila	107.550			
<b>GUZTIRA</b>	<b>109.800.493</b>		<b>98.379.104,14</b>	<b>-10,4</b>	
Desagertutako sailen aurrekontua	19.878.695	Sail berrien aurrekontua	14.558.268,01	-26,8	
Ertzaintza	Euskal Herriko Polizia Ikastegia	771.839			
	Herrizaingo Saila-laboralak	266.245			
	Ertzaintza	456.973	Ertzaintza	795.782,68	
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.495.057</b>		<b>795.782,68</b>	<b>-46,8</b>	
Erakunde autonomoak	OSALAN	55.600	OSALAN	61.539,12	10,7
	EMAKUNDE	146.003	EMAKUNDE	96.846,25	-33,7
	EUSTAT	68.182	EUSTAT	73.501,00	7,8
	HABE	41.170.686	HABE	43.348.564,00	5,3
	HAEE/IVAP	14.110.770	HAEE/IVAP	13.125.903,43	-7,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>55.551.241</b>		<b>56.706.353,80</b>	<b>2,1</b>	
Oharra: erakunde autonomoen aurrekontuetan ez dira bikoizketak kendu, beraien euskara aurrekontu osoa ageri da.					
<b>GUZTIRA-SAIL ETA ERAKUNDE ARTEKO EUSKARA TRANSFERENTZIAK KENDUTA</b>					
<b>GUZTIRA</b>	<b>109.671.797</b>		<b>100.548.844,62</b>	<b>-8,3</b>	




Aurreko datuek sail edo erakunde autonomo bakoitzaren egoera islatzen dute, baina Eusko Jaurlaritzak, bere osotasunean, euskara sustatzeari eskainitako aurrekontuak aztertu nahi baditugu, Sail eta erakunde autonomoen arteko diru transferentziak hartu behar ditugu kontuan, batuketak egiterakoan bikoizketarik izanez dadin. Izan ere, adibidez, HABEren 43,3 milioi eurotatik, 31,4 milioi euro Kulturak Sailaren euskara aurrekontuan ere sartuak baitaude, eta 8,2 milioi euro, IVAP/HAEK egindako transferentziari dagozkie. Eta HAEK/IVAPek, bere euskara aurrekontua 13 milioitan kokatu du, baina kopuru hori Justizia eta Herri Administrazio Sailak egindako transferentziari dagokio (Sailak berak euskara aurrekontu gisa adierazi dituenak).

### 5. Grafikoa: Eusko Jaurlaritzaren 2010eko euskara aurrekontu bateratua, Sailari eta Erakunde Autonomoari jarraiki



6. Grafikoa: 2002-2010 aldian Eusko Jaurlaritzako aurrekontu orokorrek eta euskara aurrekontuek izandako igoera akumulatuaren ehunekoa (oinarria 2002 urtea)

■ Euskara aurrekontuak ■ Aurrekontu orokorrak



Iturria: Siadeco, 2011.

### 2.1.3.- FORU ALDUNDIAK

Guztira hiru foru aldundien euskara aurrekontua 18,1 milioi eurokoa da: Arabako Foru Aldundiak 2,3 milioi, Bizkaiko Foru Aldundiak 9,6 milioi eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 6,1 milioi euro.

Hiru foru aldundiek kudeatzen duten aurrekontu propioa orotara 3.121 milioi eurokoa izan dela kontuan hartuta, euskararen normalizaziorako erabilitako 18 milioien pisua, **aurrekontu osoaren %0,58koa** da, batez beste. Gipuzkoakoa da hiruetatik euskarari proportzionalki diru-baliabide gehien eskaini diona (%0,68), eta batez bestekotik behera kokatzen dira aldiz, bai Bizkaiko foru aldundia (%0,55) baita Arabakoa ere (%0,52).




Orain bi urteko datuekin alderatuta, jaitsi egin da foru aldundiek orotara euskara sustatzeari eskainitako aurrekontua, bai kopuru absolutuetan (1,8 milioi gutxiago), bai erlatiboetan (%0,66 izatetik, %0,58 izatera pasa da), baina bilakaera diferentea izan da 3 erakundeetan:

- Arabako Foru Aldundian igo egin da euskarari eskainitako aurrekontua, bai kopuru absolutuetan (300 mila euro gehiago), bai erlatiboetan (%0,43tik, %0,52ra). Inoiz eskainitako kopururik altuena eskaini dio Arabako Foru Aldundiak euskara sustatzeari 2010. urtean, bai kopuru absolutuetan, bai erlatiboetan, (eta aurreko edizioetan beste bi foru aldundiekiko zuen aldea murrizten ari da).
- Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien kasuan aldiz, behera egin dute euskara aurrekontuek, bai kopuru absolutuetan (milioi bana foru aldundi bakoitzean), bai erlatiboetan. Jaitsiera nabarmenagoa izan da Gipuzkoako Foru Aldundian (%0,89 tik %0,68ra) Bizkaikoan baino (%0,62etik %0,55ra); bi kasu hauetan, aurrekontu osoarekiko, euskara aurrekontuen pisua inoizko baxuena da.

#### 7. Grafikoa: Foru Aldundien euskara aurrekontuen bilakaea (2002-2010)

(milioi €)



Iturria: Siadeco, 2011.




6. Taula: EAEko Foru Aldundien aurrekontu osoaren eta euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2002-2010)

ERAKUNDE-MOTA	Urtea	Erakundearen aurrekontu osoa		Euskara aurrekontua		[Euskara aurrekontua/ Aurrekontu osoa] ratioa		
		€	% Δ	€	% Δ	Ratioa (%)	%Δ	
Foru Aldundiak	GUZTIRA	2002	1.747.026.817		11.836.109		0,68	
		2004	2.064.699.668	18,18	15.645.334	32,18	0,76	11,85
		2006	2.505.421.545	21,35	15.961.175	2,02	0,64	-15,93
		2008	3.005.037.376	19,94	19.926.465	24,84	0,66	4,09
		2010	3.121.722.809	3,88	18.131.469	-9,01	0,58	-12,41
	Arabako Foru Aldundia	2002	304.649.600		1.018.359		0,33	
		2004	334.859.983	9,92	1.324.224	30,04	0,40	21,21
		2006	376.235.130	12,36	1.219.385	-7,92	0,32	-20,00
		2008	474.858.316	26,21	2.039.854	67,29	0,43	34,38
		2010	446.461.983	-5,98	2.333.221	14,38	0,52	21,54
	Bizkaiko Foru Aldundia	2002	911.487.727		6.925.997		0,76	
		2004	1.143.696.162	25,48	9.026.691	30,33	0,79	3,95
		2006	1.368.591.426	19,66	9.374.277	3,85	0,68	-13,92
		2008	1.730.768.708	26,46	10.785.052	15,05	0,62	-8,82
		2010	1.764.609.826	1,96	9.641.826	-10,60	0,55	-11,87
	Gipuzkoako Foru Aldundia	2002	530.889.490		3.891.753		0,73	
		2004	586.143.523	10,41	5.294.419	36,04	0,90	23,29
		2006	760.594.989	29,76	5.367.513	1,38	0,71	-21,11
		2008	799.410.352	5,10	7.101.559	32,31	0,89	25,35
		2010	910.651.000	13,92	6.156.422	-13,31	0,68	-24,04

Iturria: Siadeco, 2011.

8. Grafikoa: Foru Aldundien aurrekontu osoarekiko, euskara aurrekontu likidatuak izan duen pisu erlatiboaren bilakaera (2002-2010)



Iturria: Siadeco, 2011.

— Arabako Foru Aldundia — Bizkaiko Foru Aldundia  
— Gipuzkoako Foru Aldundia — GUZTIRA



## 2.1.4.- 5.000 BIZTANLEZ GORAKO UDALERRIETAKO UDALAK

Orotara, EAEko 5.000 biztanlez gorako herrietako 66 udalen euskara aurrekontu likidatua 31,7 milioi eurokoa izan da: Arabako 2 udalek 723 mila euro, Bizkaiko 32 udalek 14,3 milioi eta Gipuzkoakoek 16,7 milioi (32 udal Gipuzkoakoak).

66 udalerrri horietako udalen aurrekontu propioa orotara 1.669 milioi eurokoa izanik, euskarari eskainitakoa **aurrekontu osoaren %1,90** da. Gipuzkoako udalak dira euskarari proportzionalki diru-baliabide gehien eskaini diotenak (%2,51); Arabakoek bere aurrekontuaren %1,55 eskaini diote, eta Bizkaikoek zertxobait gutxiago, %1,49.

2008ko datuekin alderatuta, udaletan ere euskara aurrekontuek behera egin dute, bai kopuru absolutuetan (1,9 milioi gutxiago), bai erlatiboetan (%2,06 izatetik, %1,90 izatera pasa da); erlatiboetan 2006. urteko ratoria hurbildu da (kopuru absolutuetan orduan baino 4 milioi euro gehiago erabili badira ere).

Udalak lurralde historikoari jarraiki banatuz gero, bilakaera ez da homogenea izan:

- Arabako bi udalerriek, azterketa hau egiten hasi zenetik, inoiz baino diru gehiago eskaini diote euskara sustatzeari, bai kopuru absolutuetan (723 mila euro), bai erlatiboetan (%1,55).
- Bizkaiko 32 udalerriek, orotara, orain bi urte baino gutxiago eskaini diote euskara normalizatzeari, bai kopuru absolutuetan (milioi bat gutxiago), bai erlatiboetan (%1,55 izatetik %1,49ra pasa da). Erlatiboki, inoiz baino gutxiago eskaini dute Bizkaiko udalerriek.
- Gipuzkoako 32 udalerriek ere (edizio honetan 2 udalerrri gehiago sartu direla kontuan hartu behar da, Orio eta Mutriku), orain 2 urte baino gutxiago eskaini diote: kopuru absolutuetan milioi bat gutxiago, eta erlatiboetan %2,73 izatetik, %2,51 izatera jaitsi da. Halere, lehen esan bezala, proportzionalki Gipuzkoako udalerrietako udalak dira euskara normalizatzeari diru gehien eskaintzen diotenak.




7. Taula: EAEko 5.000 biztanletik gorako herrietako udalen aurrekontu osoaren eta euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2002-2010) lurraldeari jarraiki (hiriburuak salbu)

LURRALDEA		Urtea	Erakundearen aurrekontu osoa		Euskara aurrekontua		[Euskara aurrekontua/Aurrekontu osoa] ratioa	
			€	% Δ	€	% Δ	Ratioa (%)	%Δ
< 5.000 biztanletik gorako udalak	GUZTIRA	2002	1.032.231.095		19.816.294		1,92	
		2004	1.196.293.257	15,89	24.763.995	24,97	2,07	7,83
		2006	1.464.583.885	22,43	27.712.886	11,91	1,89	-8,59
		2008	1.630.816.711	11,35	33.644.477	21,40	2,06	9,03
		2010	1.669.049.133	2,34	31.725.090	-5,70	1,90	-7,86
	Arabako Udalak	2002	38.886.741		420.149		1,08	
		2004	37.224.394	-4,27	570.756	35,85	1,53	41,91
		2006	48.263.127	29,65	707.613	23,98	1,47	-4,38
		2008	44.410.346	-7,98	613.699	-13,27	1,38	-5,75
		2010	46.680.959	5,11	723.318	17,86	1,55	12,13
	Bizkaiko Udalak	2002	567.349.325		8.566.012		1,51	
		2004	662.093.080	16,70	10.366.521	21,02	1,57	3,70
		2006	819.205.219	23,73	13.316.110	28,45	1,63	3,82
		2008	934.776.064	14,11	15.237.992	14,43	1,63	0,28
		2010	957.941.648	2,48	14.291.832	-6,21	1,49	-8,48
	Gipuzkoako Udalak	2002	425.995.029		10.830.133		2,54	
		2004	496.975.783	16,66	13.826.719	27,67	2,78	9,43
		2006	597.115.540	20,15	13.689.142	-1,00	2,29	-17,60
		2008	651.630.301	9,13	17.792.786	29,98	2,73	19,10
		2010	664.426.526	1,96	16.709.940	-6,09	2,51	-7,89

Iturria: Siadeco, 2011.


Oharra: 2010, urtean, lehen aldiz Mutriku eta Orio sartu dira azterketan. Bi udalerrri gehiago dira beraz Gipuzkoan

9. Grafikoa: 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen euskara aurrekontuen bilakaera (2002-2010), lurraldeari jarraiki (milioi €)



Iturria: Siadeco, 2011.

10. Grafikoa: 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen aurrekontu osoarekiko, euskara aurrekontu likidatuak izan duen pisu erlatiboaren bilakaera (2002-2010)



Iturria: Siadeco, 2011.

Arabako udalak      Bizkaiko udalak  
Gipuzkoako udalak      GUZTIRA udalak



### 2.1.5.- HIRIBURUAK

EAEko hiru hiriburuek, orotara 9 milioi euro erabili dituzte hizkuntza normalkuntzarako: Gasteizek 3,4 milioi euro, eta Bilbok eta Donostiak gutxiago, 2,8na milioi inguru .

Hiru hiriburuen aurrekontu propioa orotara 1.361 milioi eurokoa izan dela kontuan hartuta, euskararen normalizatzeko eta sustapenari **aurrekontu osoaren %0,66** eskaini diote batez beste. Donostia da euskarari proportzionalki diru-baliabide gehien eskaini dion hiriburua (%0,84); Gasteiz dator jarraian, %0,79 eskainiz, eta Bilbo hirugarren, bere aurrekontuen %0,47 eskainiz.

Orain bi urteko datuekin alderatuta, igo egin da kopuru absolutuetan hiriburuek orotara euskara sustatzeari eskainitako aurrekontua (600 mila euro inguru), ikerketa hau egiten hasi zenetik inoiz baino kopuru altuagoa eskainiz euskarari; baina jaitsi zertxobait aldiz, kopuru erlatiboetan eskainitakoa; hots, aurrekontu osoekiko pisua galdu dute euskara aurrekontuek (%0,69 izatetik, %0,66 pasa da):

- Gasteizek, kopuru absolutuetan inoiz baino baliabide gehiago eskaini dizkio euskara sustatzeari (3,4 milioi euro); erlatiboki, aldiz, euskara aurrekontuen pisua 2008. urtekoa baino altuagoa izan arren, 2006koaren zertxobait azpitik geratzen da.
- Bilbok, aldiz, kopuru absolutuetan zertxobait gutxiago eskaini dio (72 mila euro gutxiago), eta erlatiboki jaitsi egin da baita ere euskarari eskainitakoa (%0,52tik %0,47ra), 2006. urteko mailan geratuz.
- Donostiak, kopuru absolutuetan zertxobait gehiago eskaini dio (100 mila euro inguru), baina euskara aurrekontuen igoera, aurrekontu propioetan izandakoa baino apalagoa izateak, euskara aurrekontuen pisu erlatiboa baxuagoa izatea ekarri du (%0,84ra) inoizko baxuena izateraino.




8. Taula: EAEko hiriburuetakoko udalen aurrekontu osoaren eta euskara aurrekontu likidatuaren bilakaera (2002-2010)

ERAKUNDEA	Urtea	Erakundearen aurrekontu osoa		Euskara aurrekontua		[Euskara aurrekontua/Aurrekontu osoa] ratioa		
		€	% Δ	€	% Δ	Ratioa (%)	%Δ	
Hiriburuak	GUZTIRA	2002	758.041.654		4.580.903		0,60	
		2004	885.081.402	16,76	5.826.286	27,19	0,66	8,93
		2006	1.023.269.625	15,61	7.060.244	21,18	0,69	4,81
		2008	1.222.722.235	19,49	8.493.684	20,30	0,69	0,68
		2010	1.361.333.119	11,34	9.031.339	6,33	0,66	-4,50
	Gasteiz	2002	244.264.236		1.109.306		0,45	
		2004	250.451.259	2,53	1.882.753	69,72	0,75	65,53
		2006	319.668.270	27,64	2.602.848	38,25	0,81	8,31
		2008	405.128.870	26,73	2.946.925	13,22	0,73	-10,66
		2010	438.193.164	8,16	3.454.521	17,22	0,79	8,38
	Bilbo	2002	303.872.648		1.184.198		0,39	
		2004	393.709.250	29,56	1.440.765	21,67	0,37	-6,10
		2006	474.718.244	20,58	2.228.239	54,66	0,47	28,27
		2008	543.300.000	14,45	2.852.119	28,00	0,52	11,84
		2010	589.418.636	8,49	2.779.990	-2,53	0,47	-10,16
	Donostia	2002	209.904.770		2.287.399		1,09	
		2004	240.920.893	14,78	2.502.768	9,42	1,04	-4,67
		2006	228.883.110	-5,00	2.229.156	-10,93	0,97	-6,25
		2008	274.293.365	19,84	2.694.640	20,88	0,98	0,87
		2010	333.721.320	21,67	2.796.828	3,79	0,84	-14,69


Iturria: Siadeco, 2011.

11. Grafikoa: Hiriburuetako udalen euskara aurrekontuen bilakaera (2002-2010), lurraldeari jarraiki (milioi €)



Iturria: Siadeco, 2011.

12. Grafikoa: Hiriburuetako udalen aurrekontu osoarekiko, euskara aurrekontu likidatuak izan izan duen pisu erlatiboaren bilakaera (2002-2010)



Iturria: Siadeco, 2011.

◆ Gasteiz   
 ■ Bilbo   
 ■ Donostia   
 ■ GUZTIRA





## 2.2.- EUSKARAREN SUSTAPENERAKO SAIL ETA ERAKUNDE ARTEKO DIRU TRANSFERENTZIAK

EAEko herri administrazio guztien 156,5 milioi euroko euskara aurrekontu bateratua, ikerketan sartu diren erakundeen eta sailen artean izandako euskararen diru-transferentziak kendu ondoren kalkulaturakoa da, euskara aurrekontu bera bi bider kontatu ez dadin.


Honela, ondorengo taulan daude jasoak, erakunde bakoitzak 2010. urtean euskararen sustapenerako likidatutako aurrekontuak eta aipatu sail eta erakunde arteko diru transferentziak.

Datuak erakunde-motaren arabera agertzen direnean, erakunde-mota bakoitzak guztira likidatutako euskara aurrekontua da aurkeztu eta aztertzen dena. Hau da, 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen euskara aurrekontua kapitulu ekonomikoen arabera, edo EBPN eremuen arabera aztertzerakoan, adibidez, barne hartzen ditugu udalei Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, HAEE/IVAPek nahiz foru aldundiek, beren euskara aurrekontuetatik egindako diru transferentziak (diru-laguntza edo hitzarmen modura emandakoak normalean). Hiriburuen euskara aurrekontua aztertzerakoan ere, beraiek beste erakundeetatik euskara sustatzeko jasotako diru-transferentziak barne hartzen ditugu. Baina aldiz, foru aldundien euskara aurrekontua aztertzerakoan, beren euskara aurrekontu gisa kontabilizatuak daude gero udaletara egingo dituzten transferentziak ere.

Datu globalak eta orokorrak ematerakoan baina, hots, "euskara aurrekontu bateratuaz" ari garenean, kopuru horiek bikoiztu ez daitezten (diru-transferentzia egiten duenaren eta jasotzen duenaren diru-kopurua bikoiztu ez dadin), hartzaileari nolabait "kendu" egin diogu jasotako transferentziaren kopurua. Honela, adibidez, 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen euskara aurrekontua lantzen dugunean 31,7 milioiz ari gara, baina "euskara aurrekontu bateratuaz" ari garenean, udal horiei dagokien aurrekontua 29,3 milioikoa da (beste erakundeetatik jasotzen duten 2,4 milioiak kenduta, alegia).



### 13. Grafikoa: Euskararen sustapenerako erakunde arteko diru-transferentziak



Iturria: Siadeco, 2011.



9. Taula: Eusko Jaurlaritzako Sailen artean eta EAEko erakundeen artean, euskara aurrekontuetan izandako transferentziak (2010) (I. taula)

ERAKUNDEA	ERAKUNDEA	Euskara aurrekontua	Euskara aurrekontuetan gertatutako erakundeen arteko transferentziak							Euskara aurrekontu NETOA
		Kopurua								
Eusko Jaurlaritzako Sailak	Kultura Saila	55.823.726,82								55.823.726,82
	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	27.368.522,90								27.368.522,90
	Lehendakaritza	136.742,88								136.742,88
	Herrizaingo Saila	106.709,47								106.709,47
	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila	189.865,06								189.865,06
	Osasun eta Kontsumo Saila	195.269,00								195.269,00
	Ekonomia eta Ogasun Saila	104.085,31								104.085,31
	Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila	192.321,51								192.321,51
	Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila	255.953,93								255.953,93
	Justizia eta Herri Administrazio Saila	13.745.732,18								13.745.732,18
	Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	260.175,08								260.175,08
	<b>GUZTIRA</b>	<b>98.379.104,14</b>								<b>98.379.104,14</b>
Erakunde autonomoak	HAEE/IVAP	13.125.903,43	Justizia eta Herri Administrazio Sailatik							
			13.517.077,00							-391.173,57
	HABE	43.348.564,00	HAEE/IVAP	Hezkuntza Saila	Justizia Saila	Beste hitzarmenak	GUztira hitzarmenak	Transferentzia Kulturatik	GUZTIRA	
			8.207.903,00	847.601,00	920.769,00	450.601,00	10.426.874,00	31.388.445,00	41.815.319,00	1.533.245,00
	EUSTAT	73.501,00								73.501,00
	EMAKUNDE	96.846,25								96.846,25
	OSALAN	61.539,12								61.539,12
	Ertzaintza	795.782,68								795.782,68
<b>EJ-Erakunde autonomoak</b>	<b>57.502.136,48</b>								<b>2.169.740,48</b>	
<b>Eusko Jaurlaritzaren administrazio orokorra eta erakunde autonomoak</b>									<b>100.548.844,62</b>	



9-II. Taula: Eusko Jaurlaritzako Sailen artean eta EAeko erakundeen artean, euskara aurrekontuetan izandako transferentziak (2010) (II. taula)

ERAKUNDEA	ERAKUNDEA	Euskara aurrekontua Kopurua	Euskara aurrekontuetan gertatutako erakundeen arteko transferentziak								Euskara aurrekontu NETOA
			Kultura Sailetik-HPS		HAEE/IVAP		Arabako F.A.	Bizkaiko F.A.	Gipuzkoako F.A.	GUZTIRA TRANSFERENTZIAK	
Foru Aldundiak	<b>Foru Aldundiak</b>										
	Arabako Foru Aldundia	2.333.220,89									2.333.220,89
	Gipuzkoako Foru Aldundia	6.156.422,00									6.156.422,00
	Bizkaiko Foru Aldundia	9.641.826,00									9.641.826,00
	<b>Foru Aldundiak</b>	<b>18.131.468,89</b>									<b>18.131.468,89</b>
Foru Aldundiak	5000 biztanlez gorako udalak	31.725.089,68	Kultura Sailetik-HPS		HAEE/IVAP		Arabako F.A.	Bizkaiko F.A.	Gipuzkoako F.A.	GUZTIRA TRANSFERENTZIAK	
			Arabako udalerriak	38.143,09	Arabako udalerriak	14.550,07					
			Bizkaiko udalerriak	484.175,38	Bizkaiko udalerriak	41.714,37					
			Gipuzkoako udalerriak	657.638,04	Gipuzkoako udalerriak	17.345,82					
			<b>Guztira</b>	<b>1.179.956,51</b>	<b>Guztira</b>	<b>73.610,26</b>	<b>17.213,06</b>	<b>867.497,61</b>	<b>246.694,00</b>	<b>2.384.971,44</b>	<b>29.340.118,24</b>
Hiriburuak			Kultura Sailetik		IVAPetik		Foru Aldunditik		GUZTIRA TRANSFERENTZIAK		
	Vitoria-Gasteizko Udala	3.454.520,89	42.783,90		101.725,62		40.000,00				
	Donostiako Udala	2.796.828,05	47.383,31		57.075,99		16.800,00				
	Bilboko Udala	2.779.990,00	70.292,22				160.292,25				
	<b>Hiriburuak</b>	<b>9.031.338,94</b>	<b>160.459,43</b>		<b>158.801,61</b>		<b>217.092,25</b>		<b>536.353,29</b>	<b>8.494.985,65</b>	
<b>GUZTIRA NETOA</b>											<b>156.515.417,40</b>

Oharra: 2010eko ekitaldi honetan, 2 udalerrri gehiago sartu dira (Orio eta Mutriku)



Hauexek dira diru-transferentzia nagusiak:

- Eusko Jaurlaritzaren kasuan, adibidez, Kultura Sailak 55,8 milioi eskaintzen dizkio euskara sustatzeari, baina horietatik 31,4 HABE finantzatzeko erabiltzen ditu; Justizia eta Administrazio Sailak ere 13,7 milioi eskaintzen dizkio euskarari, baina horietatik 13,5 milioi HAEE/IVAP finantzatzeko, eta HAEE/IVAPek berak, horietatik 8,2 milioi HABEri transferitzen dizkio.
- Hezkuntza Sailak eta Justizia Sailak ere parte hartzen dute, beren euskara aurrekontuarekin, HABEren finantziazioan.

5.000 biztanlez gorako udalerrien eta hiriburuen kasuan, EBPN garatzeko eta euskararen normalizaziorako Kultura Saitetik eta Foru Aldundietatik jasotako diru laguntzak ditugu batetik, eta euskarazko eskoletara joateagatik egindako ordezkapenak diruz laguntzeko, HAEE/IVAPetik jasotako diru-transferentziak bestetik. Eragiketak egiteko, azterketan parte hartu duten udalei (5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalei, alegia), egindako diru-transferentziak dira hemen ageri direnak, eta ez erakunde horiek (Kultura Sailak, HAEE/IVAPek eta foru aldundiek) udalei emandako guztirako kopuruak, 5000 biztanlez beherako udalerrietako udalei emandakoak kenduta alegia. Orotara, 1,3 milioi transferitu dizkie Kultura Sailak, beste hainbeste (1,3 milioi) foru aldundiek eta 230 mila euro HAEE/IVAPek.



## 2.3.- EUSKARAREN AURREKONTUAK BIZTANLEKO

### 2.3.1.- ERAKUNDE-MOTARI JARRAIKI

Orain arte aurkeztutako taulatan euskara aurrekontuak izan ditugu hizpide: kopuru absolutuak eta erakundeen aurrekontu propioekiko euskara aurrekontuek izan duten pisu erlatiboa azaldu dugu; eta 2010. urteko datuak azken urteetakoekin alderatu ditugu. Datu horiei, beste ikuspegi bat erantsi nahi diegu jarraian, EAEko administrazio publikoak euskara sustatzeari biztanleko eskaintzen dioen diru-baliabideena (euroena) alegia.

10. Taula: 2010eko euskara aurrekontua eta aurrekontu osoa biztanleko, erakunde-motari jarraiki

ERAKUNDE-MOTA	Euskara aurrekontua		Aurrekontu osoa	
	Aurrekontua (€)	€ biztanleko	Aurrekontua (€)	€ biztanleko
<b>Eusko Jaurlaritza</b>	<b>100.548.845</b>	<b>46,36</b>	<b>10.327.556.416</b>	<b>4.761,35</b>
<b>Foru Aldundiak</b>	<b>18.131.469</b>	<b>8,36</b>	<b>3.121.722.809</b>	<b>1.439,22</b>
Arabako Foru Aldundia	2.333.221	7,36	446.461.983	1.408,33
Bizkaiko Foru Aldundia	9.641.826	8,37	1.764.609.826	1.532,17
Gipuzkoako Foru Aldundia	6.156.422	8,79	910.651.000	1.300,35
<b>5.000 biztanlez gorako udalak</b>	<b>31.725.090</b>	<b>27,10</b>	<b>1.669.049.133</b>	<b>1.425,86</b>
Arabakoak (2 udal)	723.318	25,41	46.680.959	1.639,65
Bizkaikoak (32 udal)	14.291.832	20,86	957.941.648	1.398,11
Gipuzkoakoak (32 udal)	16.709.940	36,57	664.426.526	1.454,14
<b>Hiriburuak</b>	<b>9.031.339</b>	<b>11,62</b>	<b>1.361.333.119</b>	<b>1.752,17</b>
Gasteiz	3.454.521	14,50	438.193.164	1.839,24
Bilbo	2.779.990	7,87	589.418.636	1.668,86
Donostia	2.796.828	15,08	333.721.320	1.798,98
<b>AURREKONTU LIKIDATUA</b> (Erakunde arteko transferentziak kendu gabe)	<b>159.436.742</b>	<b>73,51</b>	<b>16.479.661.477</b>	<b>7.597,68</b>
<b>AURREKONTU BATERATUA</b> (Erakunde arteko transferentziak kenduta)	<b>156.515.417</b>	<b>72,16</b>	<b>16.479.661.477</b>	<b>7.597,68</b>

Iturria: Siadeco, 2011.

Oharra: € biztanleko ratioa EAE mailan orotara kalkulatzeko ez dugu kontuan hartzen 5.000 biztanlez beherako udalek egindako ekarpena; hau da, datu zehatza baino, hurbilpena egiten ari gara.



EAEko herri administrazio guztien aurrekontuak sartuta, urtean biztanleko 7.600 euro inguruko gastua egiten da biztanleko; eta horietatik euskara sustatu eta normalizatzerazuzendutakoak 72,16 dira; Eusko Jaurlaritzak 46,36 euro jartzen ditu biztanleko; 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalek, batez beste, 27,10 euro biztanleko, hiriburuek 11,62 euro eta foru aldundiek 8,36 euro.


Erakunde mota desberdinen artean ere bada alderik lurralde historikoaren arabera:

- 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalen kasuan, 36,57 euro erabiltzen dituzte batez beste Gipuzkoakoek, eta nabarmen gutxiago Arabakoek (25,41 euro) eta Bizkaikoek (20.86 euro).
- Foru aldundien kasuan, aldeak askoz ere txikiagoak dira, 8,79 euro erabiltzen ditu Gipuzkoakoak, 8,37 euro Bizkaikoak eta 7,36 euro Arabakoak.
- Hiriburuen kasuan, oso handia da Donostiak eta Gasteizek Bilborekiko duten aldea: lehenengok 15,08 eta 14,50 euro eskaintzen dituzten bitartean (hurrenez hurren), Bilbok 7,87 euro eskaintzen ditu.


Euskara aurrekontuaren eta aurrekontu publiko osoaren biztanleko ratioaren bilakaerei erreparatuta, aurreko urteekiko joera aldatu egiten da 2010eko datuetan. 2008ra arte biztanleko euskara aurrekontuak goranzko joera erakutsi bezala, 2008tik 2010era behera egiten hasi da oro har. Salbuespena hiriburuetakoa da, gainerakoetan, jaitsi egin da euskarari biztanleko eskaintako aurrekontua. Herri administrazioen aurrekontu propio orokorrek aldiz, oro har gorantz jarraitu dute, eta beraz, kopuru absolutuetan bezala, erlatiboki ere, jaitsi egin da euskara aurrekontuaren pisua.

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, Arabako erakundeak dira aurreko edizioarekiko gora egin duten bakarrak (Arabako Foru Aldundia, Gasteiz eta aztertutako bi udalerrriak); Donostiak ere gora egin du biztanleko eskaintako euskara aurrekontuan, baina igoera hori aurrekontu osoan izandakoa baino apalagoa da.

- Eusko Jaurlaritzaren euskara sustatzeko diru-laguntza eta hitzarmenetako aurrekontuaren %45,1 HABEren bitartez kudeatzen da (33 milioi euro), eta Kultura Sailak ia %30 (21,7 milioi). Hezkuntza Sailak ia 10 milioi (%13,6) jartzen ditu eta IVAP/HAEK 8,4 milioi (%11,6).
- HABE, HAEK/IVAP eta Hezkuntzako diru-laguntzak, EBPNko eremu zehatz batekin lotuak daude:
  - HABEren aurrekontu osoa euskalduntze-alfabetatzera bideratuta dago: denera, 33 milioi euro.
  - IVAP/HAEK bere aurrekontu osoa administrazioara bideratu du; 8,4 milioi euro.
  - Eta Hezkuntza Sailak (ia 10 milioi), irakaskuntzara.
- Kultura Sailak, aldiz elikadura helburu duten ekimenetara bideratzen du aurrekontuaren erdia baino gehiago (%55,7), eta erabilerara ia herena (%32,5). Horietatik, diru partidarik handienak eremu hauetara zuzentzen dira:
  - Elikaduraren barnean, hedabideetara 6 milioi euro (%27,6) eta corpus plangintza eta euskararen kalitatera 2,5 milioi euro (%11,9).
  - Erabileraren atalean, berriz, hiru eremutara bideratzen dira diru-laguntza eta hitzarmenak, nahikoa kantitate parekatuan: teknologia berriak (2,6 milioi), lan arloa (2,3 milioi) eta administrazioa (2,1 milioi). (Administrazioaren atalean sartutako kopuru hori, Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eta EBPN kudeatzeko gastuei dagokio)
- 2008. urteko datuekiko diferentziarik nagusienak, laburbilduta, honakoak:
  - Kultura Sailak 6,4 milioi gutxiago eskaini ditu diru-laguntza eta hitzarmenetan 2010. urtean, eta alderik handiena "diru-laguntza eta hitzarmen orokorren" atalean ageri da. Izan ere, 2008. urtean zehaztutako hainbat diru-laguntza eta hitzarmen desagertu eta beste batzuk murriztu egin dira nabarmen.



- Jaitsiera konpentsatzen ez badute ere, Kultura Sailak diru-laguntza eta hitzarmenetan emandako kopuruak gora egin du hiru eremutan: administrazioan, liburugintzan eta kulturgintzan, azken bi hauetan 2008ko kopuruak bikoiztu egin dituelarik.
- HUISen, 3 milioitan egin du gora diru-laguntza eta hitzarmenei eskainitakoak, (6,3 milioitik, 9,9 milioira), eta HABEn ere beste hainbeste (30 milioitik, 33 milioira).
- Amaitzeko aipatu IVAP/HAEEn izandako 2,8 milioiko jaitsiera.



36. Taula: Euskararen sustapenerako 2008 eta 2010eko diru-laguntza eta hitzarmenen aurrekontuak eremuari jarraiki, Eusko Jaurlaritzan

EREMUA		Kultura Saila		Hezkuntza Saila (HUIS)		IVAP-HAEE		HABE		GUZTIRA	
		€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Irakaskuntza	2008	-	-	6.365.588	100,0	-	-	-	-	6.365.588	8,4
	2010			9.950.164	100,0	-	-	-	-	9.950.164	13,6
Euskalduntze-alfabetatzea	2008	-	-	-	-	9.811.800	86,9	30.346.742	100,0	40.158.542	52,8
	2010					-	-	33.010.730	100,0	33.010.730	45,1
Familia bidezko jarraipena	2008	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
	2010	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
<b>ONDORENGOETARATZEA</b>	<b>2008</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>6.365.588</b>	<b>100,0</b>	<b>9.811.800</b>	<b>86,9</b>	<b>30.346.742</b>	<b>100,0</b>	<b>46.524.130</b>	<b>61,1</b>
	<b>2010</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>9.950.164</b>	<b>100,0</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>33.010.730</b>	<b>100,0</b>	<b>42.960.894</b>	<b>58,7</b>
Administrazioa	2008	1.732.000	6,2	-	-	1.479.213	13,1	-	-	3.211.213	4,2
	2010	2.138.500	9,8			8.440.495	99,9			10.578.995	14,5
Teknologia berriak	2008	2.754.531	9,8	-	-	-	-	-	-	2.754.531	3,6
	2010	2.626.000	12,1							2.626.000	3,6
Lan-arloa	2008	2.885.000	10,3	-	-	-	-	-	-	2.885.000	3,8
	2010	2.300.000	10,6							2.300.000	3,1
Aisia, kirola eta erlijioa	2008	140.000	0,5	-	-	-	-	-	-	140.000	0,2
	2010	-	-							-	-
<b>ERABILERA</b>	<b>2008</b>	<b>7.511.531</b>	<b>26,8</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>1.479.213</b>	<b>13,1</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>7.511.531</b>	<b>11,8</b>
	<b>2010</b>	<b>7.064.500</b>	<b>32,5</b>			<b>8.440.495</b>	<b>99,9</b>			<b>15.504.995</b>	<b>21,2</b>

Oharra: 2008ko datuetan HAEE/IVAPek administrazio publikoko langileen euskalduntzerako HABEri egindako diru-ekarpena euskalduntze-alfabetatze eremuan kokatua dago; 2010eko datuetan ordea, administrazioa euskalduntzearekin lotu da diru-laguntza partida hori; ondorioz, bi urteetako datuak alderatzerakoan bi eremu horietan dauden aldeak nagusiki irizpide aldaketa horri dagozkie.



EREMUA		Kultura Saila		Hezkuntza Saila (HUIS)		IVAP-HAEE		HABE		GUZTIRA	
		€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	2008	3.021.510	10,7	-	-	-	-	-	-	3.021.510	4,0
	2010	2.575.253	11,9	-	-	-	-	-	-	2.575.253	3,5
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,...)	2008	6.212.158	22,1	-	-	-	-	-	-	6.212.158	8,2
	2010	5.999.745	27,6	-	-	-	-	-	-	5.999.745	8,2
Liburugintza	2008	984.501	3,5	-	-	-	-	-	-	984.501	1,3
	2010	2.141.017	9,9	-	-	-	-	-	-	2.141.017	2,9
Publizitatea	2008	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
	2010	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Kulturgintza	2008	568.008	2	-	-	-	-	-	-	568.008	0,7
	2010	1.375.557	6,3	-	-	12.000	0,1	-	-	1.387.557	1,9
<b>ELIKADURA</b>	<b>2008</b>	<b>10.786.177</b>	<b>38,3</b>	-	-	-	-	-	-	<b>10.786.177</b>	<b>14,2</b>
	<b>2010</b>	<b>12.091.572</b>	<b>55,7</b>	-	-	<b>12.000</b>	<b>0,1</b>	-	-	<b>12.103.572</b>	<b>16,6</b>
Toki entitateetako hizkuntza egitasmoak	2010	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelako diru-laguntza eta hitzarmenak	2010	2.559.900	11,8	-	-	-	-	-	-	2.559.900	3,5
<b>DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK</b>	<b>2008</b>	<b>9.810.639</b>	<b>34,9</b>	-	-	-	-	-	-	<b>9.810.639</b>	<b>12,9</b>
	<b>2010</b>	<b>2.559.900</b>	<b>11,8</b>	-	-	-	-	-	-	<b>2.559.900</b>	<b>3,5</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2008</b>	<b>28.108.347</b>	<b>100,0</b>	<b>6.365.588</b>	<b>100,0</b>	<b>11.291.013</b>	<b>100</b>	<b>30.346.742</b>	<b>100,0</b>	<b>76.111.690</b>	<b>100,0</b>
	<b>2010</b>	<b>21.715.972</b>	<b>100,0</b>	<b>9.950.164</b>	<b>100,0</b>	<b>8.452.495</b>	<b>100,0</b>	<b>33.010.730</b>	<b>100,0</b>	<b>73.129.361</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2011.



Foru Aldundietan, bestelako diru-laguntza eta hitzarmen orokorrak finantzatzera bideratu dira 5,2 milioi euro (%46,0), erabilera helburu dutenetara 3,1 milioi (%27,3) eta elikadura dutenetara ia 3 milioi (%25,9). Baina banaketa hau nabarmen aldatzen da foru aldundi batetik bestera:

- Arabako Foru Aldundiak bideratutako 863 mila eurotik, 423 mila (%49,0) bideratzen ditu toki entitate eta mankomunitateetatik kudeatutako hizkuntza egitasmoetara, 200 mila euro corpus-plangintza eta euskararen kalitatera (%23,2) eta 168 mila kulturagintzara (%19,5).
- Bizkaiko Foru Aldundiak bideratu dituen 5,5 milioi euroatik, 3,7 milioi (%67,2-bi heren pasa) bestelako diru-laguntza eta hitzarmenetara bideratu ditu, 790 mila euro teknologia berrietara (%14,2) eta 750 mila elikadura helburu duten eremuetara (%13,5).
- Eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratutako 5 milioi euroatik, aldiz, 2 milioi bideratu dira erabilera helburu duten ataletara (%40,9), eta horren barnean nagusiki teknologia berrietara (1,1 milioi) eta administrazioa (600 mila euro); 1,8 milioi elikadurara -%36,9- (eta horren barnean 802 mila euro hedabideetara (%15,9) eta 1 milioi euro bestelako diru-laguntza eta hitzarmenetara (%20,6).

2008. urtean, foru aldundiek banatutako diru-laguntza eta hitzarmenekiko, 2010. urtekoek agertzen dituzten alde nagusiez aldiz, honakoa azpimarratuko genuke:

- Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuak nabarmen egin du gora (ia %35); eta alderik handienak: "bestelako diru-laguntza eta hitzarmen orokorretara" zuzendutako dirua bikoiztu egin da (200 mila eurotik, 456 milara pasa da), eta 200 mila euro eskaini dizkio corpus-plangintza eta euskararen kalitateari, baina desagertu da euskalduntze-alfabetatzeari eskainitakoa (180 mila euro).
- Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontuak aldiz, behera egin du zertxobait (-%14,1), eta jaitsierarik nabarmenena "bestelako diru-laguntza eta hitzarmen orokorretan" eman da; gora egiten du, aldiz, teknologia berriei eskainitakoak.
- Gipuzkoako Foru Aldundian ere behera egin dute diru-laguntza eta hitzarmenetara zuzendutako aurrekontuek (-%15,1), eta jaitsiera ia eremu guztietan eman da salbuespen gutxi batzuetan izan ezik. Igoerarik nabarmenena, teknologia berriek izan dute (307 mila izatetik, 1,1 milioi izatera pasa da), eta zertxobait egin dute gora "bestelako diru-laguntza eta hitzarmen orokorrek", irakaskuntzak eta liburugintzak. Gainerako eremuetan, behera egin du likidatutako aurrekontuak.



37. Taula: Euskararen sustapenerako 2008ko diru-laguntza eta hitzarmenen aurrekontuak eremuari jarraiki, Foru Aldundietan

EREMUA		Arabako Foru Aldundia		Bizkaiko Foru Aldundia		Gipuzkoako Foru Aldundia		GUZTIRA	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Irakaskuntza	2008	37.000	5,8	71.026	1,1	-	-	108.026	0,8
	2010	-	-	-	-	65.000	1,3	65.000	0,6
Euskalduntze-alfabetatzea	2008	180.000	28,1	-	-	45.000	0,8	225.000	1,7
	2010	-	-	-	-	15.000	0,3	15.000	0,1
Familia bidezko jarraipena	2008	-	-	-	-	-	-	-	-
	2010	9.000	1,0	-	-	-	-	9.000	0,1
<b>ONDORENGOETARATZEA</b>	<b>2008</b>	<b>217.000</b>	<b>33,9</b>	<b>71.026</b>	<b>1,1</b>	<b>45.000</b>	<b>0,8</b>	<b>333.026</b>	<b>2,6</b>
	<b>2010</b>	<b>9.000</b>	<b>1,0</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>80.000</b>	<b>1,6</b>	<b>89.000</b>	<b>0,8</b>
Administrazioa	2008	-	-	-	-	625.000	10,6	625.000	4,8
	2010	-	-	-	-	597.197	11,9	597.197	5,2
Teknologia berriak	2008	-	-	267.707	4,1	307.626	5,2	575.333	4,4
	2010	-	-	788.799	14,2	1.108.030	22,0	1.896.829	16,5
Lan-arloa	2008	-	-	515.000	7,9	350.000	5,9	865.000	6,6
	2010	30.000	3,5	250.000	4,5	262.500	5,2	542.500	4,7
Aisia, kirola eta erlijioa	2008	18.898	2,9	-	0,0	240.000	4,1	258.898	2,0
	2010	-	-	-	0,0	90.000	1,8	90.000	0,8
<b>ERABILERA</b>	<b>2008</b>	<b>18.898</b>	<b>2,9</b>	<b>782.707</b>	<b>12,1</b>	<b>1.522.626</b>	<b>25,7</b>	<b>2.324.231</b>	<b>17,8</b>
	<b>2010</b>	<b>30.000</b>	<b>3,5</b>	<b>1.038.799</b>	<b>18,7</b>	<b>2.057.727</b>	<b>40,9</b>	<b>3.126.526</b>	<b>27,3</b>
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	2008	-	-	485.000	7,5	489.938	8,3	974.938	7,5
	2010	200.000	23,2	197.500	3,5	383.300	7,6	780.800	6,8
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,...)	2008	18.000	2,8	364.950	5,6	1.133.020	19,1	1.515.970	11,6
	2010	-	-	250.000	4,5	801.740	15,9	1.051.740	9,2
Liburugintza	2008	-	-	111.877	1,7	423.500	7,1	535.377	4,1
	2010	-	-	177.476	3,2	430.947	8,6	608.423	5,3
Publizitatea	2008	-	-	-	-	290.000	4,9	290.000	2,2
	2010	-	-	-	-	-	-	-	0,0
Kulturgintza	2008	187.080	29,2	21.218	0,3	1.135.500	19,2	1.343.798	10,3
	2010	168.000	19,5	125.067	2,2	240.000	4,8	533.067	4,7
<b>ELIKADURA</b>	<b>2008</b>	<b>205.080</b>	<b>32,0</b>	<b>983.045</b>	<b>15,2</b>	<b>3.471.958</b>	<b>58,6</b>	<b>4.660.083</b>	<b>35,7</b>
	<b>2010</b>	<b>368.000</b>	<b>42,6</b>	<b>750.043</b>	<b>13,5</b>	<b>1.855.987</b>	<b>36,9</b>	<b>2.974.030</b>	<b>25,9</b>
Toki entitateetako hizkuntza egitasmoak Bestelako diru-laguntza eta hitzarmenak	2010	423.000	49,0	1.646.060	29,6	487.200	9,7	2.556.260	22,3
	2010	33.000	3,8	2.134.695	38,3	548.250	10,9	2.715.945	23,7
<b>BESTELAKO DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK</b>	<b>2008</b>	<b>200.000</b>	<b>31,2</b>	<b>4.651.116</b>	<b>71,7</b>	<b>883.700</b>	<b>14,9</b>	<b>5.734.816</b>	<b>43,9</b>
	<b>2010</b>	<b>456.000</b>	<b>52,8</b>	<b>3.780.755</b>	<b>67,9</b>	<b>1.035.450</b>	<b>20,6</b>	<b>5.272.205</b>	<b>46,0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2008</b>	<b>640.978</b>	<b>100,0</b>	<b>6.487.894</b>	<b>100,0</b>	<b>5.923.284</b>	<b>100,0</b>	<b>13.052.156</b>	<b>100,0</b>
	<b>2010</b>	<b>863.000</b>	<b>100,0</b>	<b>5.569.597</b>	<b>100,0</b>	<b>5.029.164</b>	<b>100,0</b>	<b>11.461.761</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2011.



5.000 biztanlez gorako udalerrietako udaletan, 2,8 milioi euro bideratu dira elikadura helburu duten eremuetara (%38,5), 2,3 milioi (%31,5) ondorengoetaraztea helburu dutenetara, eta 1,7 milioi (%23,2) erabilerara helburu dutenetara. Baina banaketa hau nabarmen aldatzen da lurralde batetik bestera:

- Arabako bi udalek, diru-laguntza eta hitzarmenetara zuzendutako aurrekontu ia osoa (57 mila euro, %92,0), euskalduntze-alfabetazera bideratuta dago.
- Bizkaiko 32 udaletan bideratutako 2,4 milioitatik, 1 milioi pasa zuzendu da ondorengoetarazera (%41,3): zehazki, 600 mila euro euskalduntze-alfabetazera eta 348 mila irakaskuntzara. Elikadurara bideratu dira 825 mila euro (%33,6), eta horien artean nagusienak hedabideak (418 mila euro) eta kulturgintza (326 mila). Eta 500 mila euro erabilerara (%20,5), eta horietatik gehiena aisia, kirola eta erlijioa (392 mila euro).
- Gipuzkoako 32 udalerritan eskainitako 4,9 milioi eurotatik, 2 milioi (%41,5) elikadura helburu duten eremuetara bideratu da; eta hor nagusiki hedabideetara (1,6 milioi) eta hein apalago batean, kulturgintzara (246 mila euro); ondorengoetarazera bideratu da 1,2 milioi (%25,8), zehazki 594 mila euro euskalduntze alfabetazera eta 492 mila euro irakaskuntzara; eta 1,2 milioi erabilerara (%24,9), gehien gehiena aisia, kirola eta erlijioa (990 mila euro).

2008. urtean, 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalek banatutako diru-laguntza eta hitzarmenekiko, 2010. urtekoek agertzen dituzten alde nagusiez aldiz, honakoa azpimarratuko genuke:

- Arabako udalen kasuan igo egin da euskalduntze alfabetazeari eskainitakoa, baina desagertu, aldiz, 2008. urtean lan arloari eskainitakoa.
- Bizkaiko udalen kasuan, %28an igo da diru-laguntza eta hitzarmenetara eskainitako aurrekontua, eta igoera eremu askotan islatzen da, baina nagusienak: kulturgintza, hedabideak, aisia kirola eta erlijioa, euskalduntze alfabetazera edota "bestelako diru-laguntza eta hitzarmen orokorrak".
- Gipuzkoako udalen kasuan, berriz %10ean egin du behera aurrekontu honek, eta jaitzierarik nabarmenenak aisia, kirola eta erlijioan, lan-arloan eta familia bidezko jarraipenean ematen dira.





38. Taula: Euskararen sustapenerako 2008ko diru-laguntza eta hitzarmenen aurrekontuak eremuari jarraiki 5.000 biztanlez gorako udalerrietan

EREMUA		Arabako Udalerriak		Bizkaiko Udalerriak		Gipuzkoako Udalerriak		5.000 biztanlez gorako udalerriak	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Irakaskuntza	2008	3.451	4,6	369.645	19,3	485.362	8,9	858.458	11,5
	2010	-	-	347.721	14,1	492.134	10,0	839.855	11,3
Euskalduntze-alfabetatzea	2008	37.832	50,6	470.206	24,5	552.280	10,1	1.060.318	14,2
	2010	57.508	92,0	600.626	24,4	594.151	12,1	1.252.286	16,8
Familia bidezko jarraipena	2008	-	-	135.034	7,0	269.115	4,9	404.149	5,4
	2010	-	-	67.643	2,8	182.438	3,7	250.081	3,4
<b>ONDORENGOETARATZEA</b>	<b>2008</b>	<b>41.283</b>	<b>55,3</b>	<b>974.885</b>	<b>50,8</b>	<b>1.306.757</b>	<b>23,8</b>	<b>2.322.925</b>	<b>31,1</b>
	<b>2010</b>	<b>57.508</b>	<b>92,0</b>	<b>1.015.990</b>	<b>41,3</b>	<b>1.268.724</b>	<b>25,8</b>	<b>2.342.222</b>	<b>31,5</b>
Administrazioa	2008	-	-	33.272	1,7	66.060	1,2	99.332	1,3
	2010	-	-	16.447	0,7	19.665	0,4	36.112	0,5
Teknologia berriak	2008	-	-	7.573	0,4	41.341	0,8	48.914	0,7
	2010	-	-	16.789	0,7	63.249	1,3	80.039	1,1
Lan-arloa	2008	27.000	36,1	107.437	5,6	369.308	6,7	503.745	6,7
	2010	-	-	78.313	3,2	152.602	3,1	230.916	3,1
Aisia, kirola eta erlijioa	2008	-	-	241.235	12,6	1.204.101	22,0	1.445.336	19,3
	2010	-	-	392.015	15,9	990.770	20,1	1.382.785	18,6
<b>ERABILERA</b>	<b>2008</b>	<b>27.000</b>	<b>36,1</b>	<b>389.517</b>	<b>20,3</b>	<b>1.680.810</b>	<b>30,7</b>	<b>2.097.327</b>	<b>28,1</b>
	<b>2010</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>503.564</b>	<b>20,5</b>	<b>1.226.287</b>	<b>24,9</b>	<b>1.729.851</b>	<b>23,2</b>
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	2008	-	-	39.595	2,1	151.254	2,8	190.849	2,6
	2010	-	-	62.056	2,5	123.056	2,5	185.112	2,5
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,...)	2008	-	-	310.698	16,2	1.660.061	30,3	1.970.759	26,4
	2010	-	-	418.432	17,0	1.623.161	33,0	2.041.593	27,4
Liburugintza	2008	-	-	36.020	1,9	74.771	1,4	110.791	1,5
	2010	-	-	16.323	0,7	48.513	1,0	64.835	0,9
Publizitatea	2008	-	-	3.000	0,2	5.212	0,1	8.212	0,1
	2010	-	-	2.359	0,1	2.315	-	4.674	0,1
Kulturgintza	2008	-	-	87.620	4,6	236.125	4,3	323.745	4,3
	2010	-	-	326.650	13,3	246.075	5,0	572.725	7,7
<b>ELIKADURA</b>	<b>2008</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>476.933</b>	<b>24,8</b>	<b>2.127.423</b>	<b>38,8</b>	<b>2.604.356</b>	<b>34,8</b>
	<b>2010</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>825.821</b>	<b>33,6</b>	<b>2.043.119</b>	<b>41,5</b>	<b>2.868.940</b>	<b>38,5</b>
Toki entitateetako hizkuntza egitasmoak Bestelako diru-laguntza eta hitzarmenak	2010	-	-	56.361	2,3	145.203	2,9	201.564	2,7
	2010	5.006	8,0	56.436	2,3	239.614	4,9	301.056	4,0
<b>BESTELAKO DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK</b>	<b>2008</b>	<b>6.428</b>	<b>8,6</b>	<b>78.299</b>	<b>4,1</b>	<b>365.523</b>	<b>6,7</b>	<b>450.250</b>	<b>6,0</b>
	<b>2010</b>	<b>5.006</b>	<b>8,0</b>	<b>112.798</b>	<b>4,6</b>	<b>384.817</b>	<b>7,8</b>	<b>502.621</b>	<b>6,8</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2008</b>	<b>74.711</b>	<b>100,0</b>	<b>1.919.634</b>	<b>100,0</b>	<b>5.480.513</b>	<b>100,0</b>	<b>7.474.858</b>	<b>100,0</b>
	<b>2010</b>	<b>62.514</b>	<b>100,0</b>	<b>2.458.172</b>	<b>100,0</b>	<b>4.922.947</b>	<b>100,0</b>	<b>7.443.633</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2011.



Azkenik, hiru lurraldeetako hiriburuetan bideratutako diru-laguntza eta hitzarmenak, helburu eta atalaren arabera nola banatzen diren ikusiko dugu jarraian:

- Bilboko Udalean emandako ia 750 mila eurotatik, ia bi heren (ia 500 mila euro-%65,4), ondorengoetaraztea helburu duten ekimenak diruz laguntzera zuzendu dira: familia bidezko jarraipena (185 mila euro), irakaskuntza (180 mila euro) eta euskalduntze alfabetatzea (123 mila euro). Horretaz gain, 122 mila euro (%16,3) bideratu dira aisia, kirola eta erlijiora; eta 102 mila (%13,7) elikadura helburu duten beste eremuetara.
- Donostiako Udalean emandako ia 670 mila eurotatik, 270 mila euro bideratu dira ondorengoetaratzera (%40,5), horietako gehiena euskalduntze-alfabetatzera (238 mila euro). Bestalde 160 mila euro bideratu dira administraziora (%23,9), eta 139 mila (%20,8) hedabideetara.
- Azkenik, Gasteizko Udalean bideratutako ia 590 mila eurotatik, 360 mila dira ondorengoetaratzera zuzendutakoak (%61,1): 229 mila euskalduntze-alfabetatzera eta 131 mila irakaskuntzara. Horiez gain, 73 mila euro bideratu ditu kulturgintzara (%12,5) eta 61 mila (%10,4) corpus-plangintza eta euskararen kalitatera.

2008. urtean, hiriburuak banatutako diru-laguntza eta hitzarmenekiko, 2010. urtekoek agertzen dituzten alde nagusiak, honakoak:

- Bilboko Udalean, zertxobait egin du behera diru-laguntza eta hitzarmen gisa banatutakoak (-%7,0): izan ere, behera egin dute nabarmen euskalduntze-alfabetatzeari, kulturgintzari eta "bestelako diru-laguntza eta hitzarmen orokorrei" eskainitakoak. Aldiz, gora egin du Bilboko udalean familia bidezko jarraipenarekin loturiko aurrekontuak, eta baita aisia, kirola eta erlijioarekin loturikoak ere.
- Donostiako Udalean, %24,3an egin du gora diru-laguntza eta hitzarmen gisa banatutakoak, baina berez bi dira aurrekontuetan gora egin duten eremuak: administrazioa (zehazki, euskara ikastaroetara joaten diren administrazio publikoko langileak ordezkatzeko diru-laguntzak: 159 mila euro-%23,9) eta "bestelako diru-laguntza eta hitzarmenak" (51 mila euro - %7,7). Izan ere gainerako eremuetan jaitsiera txikiak ematen dira.
- Azkenik, Gasteizko Udalean behera egin du diru-laguntza eta hitzarmen gisa likidatutakoak (-%15,0). Aipagarria da 2008. urtean aurrekontuaren %44,3a zen familia bidezko jarraipenaren eremua desagertu egin dela 2010. urtean. Gora egin dute nabarmen aldiz, ondorengoetaraztea helburu duten beste bi eremuek: irakaskuntzak, eta euskalduntze-alfabetatzeak.



39. Taula: Euskararen sustapenerako 2008 eta 2010eko diru-laguntza eta hitzarmenen aurrekontuak eremuari jarraiki, hiriburuetan

EREMUA		Bilbo		Donostia		Gasteiz		Hiriburuak	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Irakaskuntza	2008	101.087	12,6	41.890	7,8	22.084	3,2	165.061	8,1
	2010	180.800	24,2	32.388	4,8	131.000	22,2	344.188	17,2
Euskalduntze-alfabetatzea	2008	341.410	42,5	242.451	45,1	116.651	16,8	700.512	34,4
	2010	123.614	16,5	237.800	35,5	229.136	38,9	590.550	29,4
Familia bidezko jarraipena	2008	-	-	809	0,2	307.465	44,3	308.274	15,1
	2010	185.000	24,7	505	0,1	-	-	185.505	9,2
<b>ONDORENGOETARATZEA</b>	<b>2008</b>	<b>442.497</b>	<b>55,0</b>	<b>285.150</b>	<b>53,0</b>	<b>446.200</b>	<b>64,4</b>	<b>1.173.847</b>	<b>57,7</b>
	<b>2010</b>	<b>489.414</b>	<b>65,4</b>	<b>270.693</b>	<b>40,5</b>	<b>360.136</b>	<b>61,1</b>	<b>1.120.243</b>	<b>55,8</b>
Administrazioa	2008	-	-	-	-	18.206	2,6	18.206	0,9
	2010	-	-	159.753	23,9	19.531	3,3	179.284	8,9
Teknologia berriak	2008	35.758	4,4	-	-	-	-	35.758	1,8
	2010	18.500	2,5	-	-	-	-	18.500	0,9
Lan-arloa	2008	14.600	1,8	13.778	2,6	-	-	28.378	1,4
	2010	16.200	2,2	1.247	0,2	10.500	1,8	27.947	1,4
Aisia, kirola eta erlijioa	2008	61.084	7,6	6.735	1,3	86.236	12,4	154.055	7,6
	2010	121.900	16,3	4.342	0,6	46.018	7,8	172.260	8,6
<b>ERABILERA</b>	<b>2008</b>	<b>111.442</b>	<b>13,9</b>	<b>20.513</b>	<b>3,8</b>	<b>104.442</b>	<b>15,1</b>	<b>236.397</b>	<b>11,6</b>
	<b>2010</b>	<b>156.600</b>	<b>20,9</b>	<b>165.342</b>	<b>24,7</b>	<b>76.049</b>	<b>12,9</b>	<b>397.991</b>	<b>19,8</b>
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	2008	43.760	5,4	13.500	2,5	66.755	9,6	124.015	6,1
	2010	32.400	4,3	-	-	61.582	10,4	93.982	4,7
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,...)	2008	18.400	2,3	174.402	32,4	-	-	192.802	9,5
	2010	28.000	3,7	139.090	20,8	-	-	167.090	8,3
Liburugintza	2008	-	-	-	-	-	-	-	-
	2010	-	-	-	-	18.000	3,1	18.000	0,9
Publizitatea	2008	-	-	-	-	-	-	-	-
	2010	-	-	-	-	-	-	-	-
Kulturgintza	2008	126.577	15,7	44.385	8,3	63.900	9,2	234.862	11,5
	2010	41.800	5,6	42.427	6,3	73.813	12,5	158.040	7,9
<b>ELIKADURA</b>	<b>2008</b>	<b>188.737</b>	<b>23,5</b>	<b>232.287</b>	<b>43,2</b>	<b>130.655</b>	<b>18,8</b>	<b>551.679</b>	<b>27,1</b>
	<b>2010</b>	<b>102.200</b>	<b>13,7</b>	<b>181.517</b>	<b>27,1</b>	<b>153.395</b>	<b>26,0</b>	<b>437.112</b>	<b>21,8</b>
Toki entitateetako hizkuntza egitasmoak Bestelako diru-laguntza eta hitzarmenak	2010	-	-	-	-	-	-	-	-
	2010	-	-	51.393	7,7	-	-	51.393	2,6
<b>BESTELAKO DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK</b>	<b>2008</b>	<b>61.560</b>	<b>7,7</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>12.000</b>	<b>1,7</b>	<b>73.560</b>	<b>3,6</b>
	<b>2010</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>51.393</b>	<b>7,7</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>51.393</b>	<b>2,6</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2008</b>	<b>804.236</b>	<b>100,0</b>	<b>537.950</b>	<b>100,0</b>	<b>693.297</b>	<b>100,0</b>	<b>2.035.483</b>	<b>100,0</b>
	<b>2010</b>	<b>748.214</b>	<b>100,0</b>	<b>668.945</b>	<b>100,0</b>	<b>589.579</b>	<b>100,0</b>	<b>2.006.738</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2011.



## 5.7.- DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMENAK BIZTANLEKO, EREMUARI ETA ERAKUNDE-MOTARI JARRAIKI

Diru-laguntza eta hitzarmenen bidez euskararen sustapenerako 2010. urtean EAEko administrazio publikoak bideratutako diru-baliabideen biztanleko ratio orokorra 43,36 eurokoa da. Lehen ikusi bezala, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak du pisu handia, biztanleko 33,72 euro ematen baititu berak diru-laguntza eta hitzarmenetan. Foru Aldundiek, batez beste 5,28 euro biztanleko, 5.000 biztanlez gorako udalek, batez beste 6,36 euro eta hiriburuek 2,58 euro biztanleko.

EBPNren eremu desberdinen aurrekontuko euro/biztanleko ratio orokorreari erreparatuta (hau da, erakunde publikoek diru-laguntza eta hitzarmen bidez likidatutako guztirako aurrekontua EAEko biztanleria osoarekiko kalkulatuta), diru kantitaterik handiena euskalduntze-alfabetatzearen eremuan ageri da: 16,08 euro biztanleko, hain zuzen ere. Gainerako eremuetara, biztanleko bideratutako aurrekontuak askoz ere baxuagoak dira:

- Administrazioa: 5,25 euro biztanleko.
- Irakaskuntza: 5,16 euro biztanleko.
- Hedabideak: 4,27 euro biztanleko.
- Diru-laguntza eta hitzarmen orokorrak: 3,87 euro biztanleko.

Hortik behera, 2 euro baino gehixeago eskaintzen zaie biztanleko eremu hauetan: "bestelako diru-laguntzak" (2,59 euro/bizt), eta teknologia berriak (2,13 euro/bizt.).

1 eta 2 euro artean aldiz, honakoei: Lan arloa (1,43 euro), corpus plangintza eta euskararen kalitatea (1,68 euro), liburugintza (1,31 euro) eta kulturgintza (1,22 euro).

Eta ez dira biztanleko 1 eurora iristen aldiz: familia bidezko transmisioa (0,20 euro), aisia, kirola eta erlijioa (0,76 euro) eta publizitatea (0,00 euro).

Erakunde eta eremuaren arabera aztertuta, honako hauek azpimarra daitezke:

- Eusko Jaurlaritzak 15,22 euro/biztanleko bideratu ditu euskalduntze-alfabetatzearen eremura, 4,88 euro administrazioa eta 4,59 euro irakaskuntzara.
- Bizkaiko foru aldundiak, 1,48 euro/biztanleko bideratu ditu diru-laguntza eta hitzarmen orokorretara, 1,58 teknologia berrietara eta 1,14 hedabideetara.
- Gipuzkoako 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalek aldiz, 3,55 euro biztanleko erabili dituzte hedabideetarako, 2,17 euro aisia kirola eta erlijiorako eta 1,30 euskalduntze alfabetatzerako.



40. Taula: EBPN eremuaren arabera erakunde desberdinek diru-laguntza edota hitzarmenatarako bideratutako euskara aurrekontu likidatuaren ratioa biztanleko

EREMUA	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak				5.000 biztanlez gorako udalerriak				Hiriburuak				GUZ-TIRA
		Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia	Foru Aldundiak	Arabako Udalerriak	Bizkaiko Udalerriak	Gipuzkoako Udalerriak	5.000 biztanlez gorako udalerriak	Bilbo	Donostia	Gasteiz	Hiriburuak	
Irakaskuntza	4,59	-	-	0,09	0,03	-	0,51	1,08	0,72	0,51	0,17	0,55	0,44	5,16
Euskalduntze-alfabetatzea	15,22	-	-	0,02	0,01	2,02	0,88	1,30	1,07	0,35	1,28	0,96	0,76	16,08
Familia bidezko jarraipena	0,00	0,03	-	-	-	-	0,10	0,40	0,21	0,52	-	-	0,24	0,20
<b>ONDORENGOETARATZEA</b>	<b>19,81</b>	<b>0,03</b>	<b>-</b>	<b>0,11</b>	<b>0,04</b>	<b>2,02</b>	<b>1,48</b>	<b>2,78</b>	<b>2,00</b>	<b>1,39</b>	<b>1,46</b>	<b>1,51</b>	<b>1,44</b>	<b>21,44</b>
Administrazioa	4,88	-	-	0,85	0,28	-	0,02	0,04	0,03	-	0,86	0,08	0,23	5,25
Teknologia berriak	1,21	-	0,68	1,58	0,87	-	0,02	0,14	0,07	0,05	-	-	0,02	2,13
Lan-arloa	1,06	0,09	0,22	0,37	0,25	-	0,11	0,33	0,20	0,05	0,01	0,04	0,04	1,43
Aisia, kirola eta erlijioa	0,00	-	-	0,13	0,04	-	0,57	2,17	1,18	0,35	0,02	0,19	0,22	0,76
<b>ERABILERA</b>	<b>7,15</b>	<b>0,09</b>	<b>0,90</b>	<b>2,94</b>	<b>1,44</b>	<b>-</b>	<b>0,73</b>	<b>2,68</b>	<b>1,48</b>	<b>0,44</b>	<b>0,89</b>	<b>0,32</b>	<b>0,51</b>	<b>9,57</b>
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	1,19	0,63	0,17	0,55	0,36	-	0,09	0,27	0,16	0,09	-	0,26	0,12	1,68
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,...)	2,77	-	0,22	1,14	0,48	-	0,61	3,55	1,74	0,08	0,75	-	0,22	4,27
Liburugintza	0,99	-	0,15	0,62	0,28	-	0,02	0,11	0,06	-	-	0,08	0,02	1,31
Publizitatea	-	-	-	-	-	-	-	0,01	-	-	-	-	-	-
Kulturgintza	0,64	0,53	0,11	0,34	0,25	-	0,48	0,54	0,49	0,12	0,23	0,31	0,20	1,22
<b>ELIKADURA</b>	<b>5,58</b>	<b>1,16</b>	<b>0,65</b>	<b>2,65</b>	<b>1,37</b>	<b>-</b>	<b>1,21</b>	<b>4,47</b>	<b>2,45</b>	<b>0,29</b>	<b>0,98</b>	<b>0,64</b>	<b>0,56</b>	<b>8,48</b>
Toki entitateetako hizkuntza egitasmoak	-	1,33	1,43	0,70	1,18	-	0,08	0,32	0,17	-	-	-	-	1,27
Bestelako diru-laguntza eta hitzarmenak	1,18	0,10	1,85	0,78	1,25	0,18	0,08	0,52	0,26	-	0,28	-	0,07	2,59
<b>DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK</b>	<b>1,18</b>	<b>1,44</b>	<b>3,28</b>	<b>1,48</b>	<b>2,43</b>	<b>0,18</b>	<b>0,16</b>	<b>0,84</b>	<b>0,43</b>	<b>-</b>	<b>0,28</b>	<b>-</b>	<b>0,07</b>	<b>3,87</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>33,72</b>	<b>2,72</b>	<b>4,84</b>	<b>7,18</b>	<b>5,28</b>	<b>2,20</b>	<b>3,59</b>	<b>10,77</b>	<b>6,36</b>	<b>2,12</b>	<b>3,61</b>	<b>2,47</b>	<b>2,58</b>	<b>43,36</b>

Iturria: Siadeco, 2011.



## 5.8.- DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMENAK GASTU MOTARI JARRAIKI

2010. urtean, diru-laguntza eta hitzarmenetan erabilitako aurrekontu osoaren hiru laurden baino gehiago (%78,9), hau da, 74,2 milioi euro, diru-laguntza modura kudeatu da eta %20,8 (19,5 milioi) hitzarmen gisa.

41. Taula: Euskararen sustapenerako diru-laguntza eta hitzarmenen zenbateko ekonomikoak, gastu motari jarraiki

GASTU-MOTA	2010 urtea	
	Euro	%
Diru-laguntza	74.219.627	78,9
Hitzarmena	19.520.732	20,8
Zehaztu gabe	301.134	0,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>94.041.493</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Siadeco, 2011.*

Diru-laguntza nahiz hitzarmen gisa bideratutako diru-baliabide gehienak, Eusko Jaurlaritzak jarri ditu: zehazki, diru-laguntza gisa emandakoaren %81,0 eta hitzarmen gisa emandakoaren %66,6.

Foru Aldundiek banatu dituzte orotara emandako diru-laguntzen %12,1 eta hitzarmenen %12,5; 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalek, diru-laguntzen %5,2, eta aldiz hitzarmenen %17,0; eta azkenik, hiriburuek diru-laguntzen %1,7 eta hitzarmenen %3,4.

Eusko Jaurlaritzan eta Foru Aldundietan bideratutako kopuruetatik, gehien-gehiena diru-laguntza gisa banatzen da; Eusko Jaurlaritzak orotara bideratutakoaren %82,2 diru-laguntza gisa ematen du, eta Foru Aldundiek emandakoaren %78,4.

Hiriburuetan, banatutakoaren %62,4 diru-laguntza gisa banatzen bada ere, hitzarmenetan banatutakoa %33,4 da; eta 5.000 biztanlez gorako udalerrietako udaletan, diru-laguntza modura banatutakoa erdia baino gehixeago den arren (%51,9), hitzarmen bidez banatzen dira bideratutako baliabide ekonomikoen %45,2; hau da, bien arteko banaketa nabarmen orekatuagoa da.



42. Taula: Euskararen sustapenerako 2010eko zenbateko ekonomikoak erakunde-motaren arabera, gastu motari jarraiki (diru-laguntza ala hitzarmena)

Erakunde-mota	Diru-laguntza		Hitzarmena		Zehaztu gabe		GUZTIRA	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Eusko Jaurlaritza	60.125.326	81,0	13.004.035	66,6	-	-	73.129.361	77,8
% hor	82,2		17,8				100,0	
Foru Aldundiak	8.981.497	12,1	2.480.264	12,5	-	-	11.461.761	12,2
% hor	78,4		21,6				100,0	
5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak	3.861.065	5,2	3.366.327	17,0	216.241	71,8	7.443.633	7,9
% hor	51,9		45,2		2,9		100,0	
Hiriburuak	1.251.739	1,7	670.106	3,4	84.893	28,2	2.006.738	2,1
% hor	62,4		33,4		4,2		100,0	
<b>GUZTIRA</b>	<b>74.219.627</b>	<b>100,0</b>	<b>19.520.732</b>	<b>100,0</b>	<b>301.134</b>	<b>100,0</b>	<b>94.041.493</b>	<b>100,0</b>
<b>% hor</b>	<b>78,9</b>		<b>20,8</b>		<b>0,3</b>		<b>100,0</b>	

Iturria: Siadeco, 2011.

EBPNren eremuei jarraiki, diru-laguntza modura emandako laguntzen pisua erdia baino gehiago da guztietan, hiru salbuespenekin: corpus plangintza eta euskararen kalitatea, administrazioa eta aisia, kirola eta erlijioa. Hiru eremu hauetan hitzarmen gisa banatutakoa nagusi izan da (%83,7, %81,8 eta %59,6 hurrenez hurren).

Beste bi eremutan, diru-laguntzak nagusi diren arren, hitzarmenek ere pisu adierazgarria dute: Kulturgintzan hitzarmen modura banatu da likidatutako aurrekontuaren %43,3 eta "bestelako diru-laguntza eta hitzarmenen" eremuan, %31 inguru.



43. Taula: Euskararen sustapenerako 2010eko zenbateko ekonomikoak eremuaren arabera, gastu motari jarraiki (diru-laguntza ala hitzarmena)

EREMUA	Diru-laguntza		Hitzarmena		Zehaztu gabe		GUZTIRA	
	€	%	€	%	€	%	€	%
Irakaskuntza	10.763.900	96,1	435.307	3,9	-	-	11.199.207	100,0
Euskalduntze-alfabetatzea	34.412.142	98,7	422.020	1,2	34.403	0,1	34.868.565	100,0
Familia bidezko jarraipena	343.776	77,3	100.810	22,7	-	-	444.586	100,0
<b>ONDORENGOETARATZEA</b>	<b>45.519.818</b>	<b>97,9</b>	<b>958.137</b>	<b>2,1</b>	<b>34.403</b>	<b>0,1</b>	<b>46.512.358</b>	<b>100,0</b>
Administrazioa	2.077.821	18,2	9.313.766	81,8	-	-	11.391.587	100,0
Teknologia berriak	3.981.869	86,2	614.958	13,3	24.540	0,5	4.621.367	100,0
Lan-arloa	2.992.213	96,5	103.925	3,4	5.225	0,2	3.101.363	100,0
Aisia, kirola eta erlijioa	655.724	39,9	<b>980.366</b>	<b>59,6</b>	8.954	0,5	1.645.045	100,0
<b>ERABILERA</b>	<b>9.707.628</b>	<b>46,8</b>	<b>11.013.015</b>	<b>53,1</b>	<b>38.719</b>	<b>0,2</b>	<b>20.759.362</b>	<b>100,0</b>
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	589.643	16,2	<b>3.041.604</b>	<b>83,7</b>	3.900	0,1	3.635.147	100,0
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,..)	7.706.979	83,2	1.473.189	15,9	80.000	0,9	9.260.168	100,0
Liburugintza	2.812.818	99,3	19.458	0,7	-	-	2.832.276	100,0
Publizitatea	2.676	57,3	-	-	1.998	42,7	4.674	100,0
Kulturgintza	1.479.945	55,8	<b>1.148.717</b>	<b>43,3</b>	22.726	0,9	2.651.388	100,0
<b>ELIKADURA</b>	<b>12.592.062</b>	<b>68,5</b>	<b>5.682.968</b>	<b>30,9</b>	<b>108.624</b>	<b>0,6</b>	<b>18.383.654</b>	<b>100,0</b>
Toki entitateetako hizkuntza egitasmoak	2.634.710	95,5	118.836	4,3	4.278	0,2	2.757.824	100,0
Bestelako diru-laguntza eta hitzarmenak	3.765.410	66,9	1.747.775	31,1	115.109	2,0	5.628.294	100,0
<b>BESTELAKO DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK</b>	<b>6.400.120</b>	<b>76,3</b>	<b>1.866.611</b>	<b>22,3</b>	<b>119.387</b>	<b>1,4</b>	<b>8.386.119</b>	<b>100,0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>74.219.627</b>	<b>78,9</b>	<b>19.520.731</b>	<b>20,8</b>	<b>301.134</b>	<b>0,3</b>	<b>94.041.492</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2011.

Diru-laguntza gisa EAEko administrazio publikoan banatutako 74,2 milioitatik, 34,4 milioi (%46,4) euskalduntze-alfabetatzearekin loturiko egitasmoetan banatu da; 10,7 milioi (%14,5) irakaskuntzaren alorrera eta 7,7 milioi (%10,4) hedabideetara.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, bere diru-laguntzetako aurrekontuaren erdia baino gehiago (%54,9); hau da, 33 milioi euro, euskalduntze-alfabetatzearen eremura bideratu da (HABEk euskaltegiei emandako diru-laguntza gisa), ia 10 milioi euro (%16,5) irakaskuntzara, eta 6 milioi (%10), hedabideetara.





Foru Aldundiek diru-laguntza bidez bideratu duten aurrekontu osoaren erdia baino gehixeago (%54,3), hau da, 4,8 milioi euro, "bestelako diru-laguntza eta egitasmo orokorretara" bideratu dute, zehazki toki entitateetatik kudeatutako hizkuntza egitasmoetarako 2,5 milioi eta 2,3 milioi bestelakoetara.

5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalek diru-laguntza bidez banatutako aurrekontuaren ia laurdena, hau da, 950 mila euro, euskalduntze-alfabetatzearen alorrera bideratu da; zertxobait gutxiago (%23,1), hau da, 890 mila euro hedabideetara; 620 mila euro irakaskuntzara (%16,1) eta 400 mila euro inguru aisia, kirola eta erlijioa (%10,4).

Hiriburuen kasuan, ia 450 mila euro bideratzen dira euskalduntze-alfabetatzera, hots, %35,7; 190na mila euro irakaskuntzara eta familia bidezko jarraipenera (%15 inguru bakoitza) eta 163 mila euro (%13,0) aisia, kirola eta erlijioa.

44. Taula: Euskararen sustapenerako 2010eko DIRU-LAGUNTZEN zenbateko ekonomikoak eremuaren arabera eta erakunde-motari jarraiki

EREMUA	Eusko Jaurlaritza		Foru aldundiak		5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak		Hiriburuak		GUZTIRA	
	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Irakaskuntza	9.950.164	16,5	-	-	621.208	16,1	192.528	15,4	10.763.900	14,5
Euskalduntze-alfabetatzea	33.010.730	54,9	-	-	954.322	24,7	447.090	35,7	34.412.142	46,4
Familia bidezko jarraipena	-	-	9.000	0,1	149.271	3,9	185.505	14,8	343.776	0,5
<b>ONDORENGOETARATZEA</b>	<b>42.960.894</b>	<b>71,5</b>	<b>9.000</b>	<b>0,1</b>	<b>1.724.801</b>	<b>44,7</b>	<b>825.123</b>	<b>65,9</b>	<b>45.519.818</b>	<b>61,3</b>
Administrazioa	1.878.000	3,1	-	-	24.967	0,6	174.854	14,0	2.077.821	2,8
Teknologia berriak	2.626.000	4,4	1.296.829	14,4	59.041	1,5	-	-	3.981.869	5,4
Lan-arloa	2.300.000	3,8	512.500	5,7	173.966	4,5	5.747	0,5	2.992.213	4,0
Aisia, kirola eta erlijioa	-	-	90.000	1,0	402.482	10,4	163.242	13,0	655.724	0,9
<b>ERABILERA</b>	<b>6.804.000</b>	<b>11,3</b>	<b>1.899.329</b>	<b>21,1</b>	<b>660.456</b>	<b>17,1</b>	<b>343.843</b>	<b>27,5</b>	<b>9.707.628</b>	<b>13,1</b>
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	100.000	0,2	383.300	4,3	106.343	2,8	-	-	589.643	0,8
Hedabideak (prentsa idatzia, irratia, telebista,...)	5.999.745	10,0	801.740	8,9	893.701	23,1	11.793	0,9	7.706.979	10,4
Liburugintza	2.141.017	3,6	608.423	6,8	45.378	1,2	18.000	1,4	2.812.818	3,8
Publizitatea	-	-	-	-	2.676	0,1	-	-	2.676	-
Kulturgintza	780.670	1,3	405.500	4,5	240.795	6,2	52.980	4,2	1.479.945	2,0
<b>ELIKADURA</b>	<b>9.021.432</b>	<b>15,0</b>	<b>2.198.963</b>	<b>24,5</b>	<b>1.288.894</b>	<b>33,4</b>	<b>82.773</b>	<b>6,6</b>	<b>12.592.062</b>	<b>17,0</b>
Toki entitateetako hizkuntza egitasmoak	-	-	2.516.260	28,0	118.450	3,1	-	-	2.634.710	3,5
Bestelako diru-laguntza eta hitzarmenak	1.339.000	2,2	2.357.945	26,3	68.465	1,8	-	-	3.765.410	5,1
<b>BESTELAKO DIRU-LAGUNTZA ETA HITZARMEN OROKORRAK</b>	<b>1.339.000</b>	<b>2,2</b>	<b>4.874.205</b>	<b>54,3</b>	<b>186.915</b>	<b>4,8</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>6.400.120</b>	<b>8,6</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>60.125.326</b>	<b>100,0</b>	<b>8.981.497</b>	<b>100,0</b>	<b>3.861.065</b>	<b>100,0</b>	<b>1.251.739</b>	<b>100,0</b>	<b>74.219.627</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2011.



Hitzarmen bidez banatutako aurrekontuaren %47,7, hau da, 9,3 milioi euro, administrazioaren alorrera zuzendu da.

Kopuru horietatik oso urrun, corpus plangintza eta euskararen kalitatearen alorrera bideratu dira 3 milioi euro hitzarmenetan, 1,7 milioi "bestelako diru-laguntza eta hitzarmenetan", 1,5 milioi hedabideetan, eta 1,1 milioi kulturgintzan.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, hitzarmen bidezko aurrekontuaren %66,9, hau da, ia 8,7 milioi euro, administrazioa bideratu da, eta %19, (ia 2,5 milioi euro) corpus-plangintza eta euskararen kalitatea sustatzeko hitzarmenetara.

Foru Aldundiek hitzarmen bidez banatutakoaren %24 inguru (600 mila euro) teknologia berrietara bideratu da, eta beste hainbeste administrazioa. 400 mila euro erabili dituzte corpus-plangintza eta euskararen kalitatea sustatzeko, 358 mila "bestelako diru-laguntzatarako" eta 250 mila hedabideetarako.

5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalek, hedabideetara bideratzen dute hitzarmen bidez banatutakoaren ia herena (1 milioi euro), eta zertxobait gutxiago (ia %29), hau da, 970 mila euro, aisia, kirola eta erlijiora.

Hiriburuek berriz, irakaskuntzara eta euskalduntze-alfabetatzera bideratu dute hitzarmen bidez banatutakoaren %44,0, hau da, 295 mila euro, hedabideetara %20,5 (137 mila euro) eta kulturgintzara %15,7 (105 mila euro).


 45. Taula: Euskararen sustapenerako 2010eko HITZARMENEN zenbateko ekonomikoak eremuaren arabera eta erakunde-  
 motari jarraiki

EREMUA	Eusko Jaurlaritza		Foru aldundia		5.000 biztanlez gorako udalerrietako udalak		Hiriburuak		GUZTIRA	
	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Irakaskuntza	-	-	65.000	2,6	218.647	6,5	151.660	22,6	435.307	2,2
Euskalduntze-alfabetatzea	-	-	15.000	0,6	263.560	7,8	143.460	21,4	422.020	2,2
Familia bidezko jarraipena	-	-	-	-	100.810	3,0	-	-	100.810	0,5
<b>ONDORENGOETARATZEA</b>	-	-	<b>80.000</b>	<b>3,2</b>	<b>583.018</b>	<b>17,3</b>	<b>295.120</b>	<b>44,0</b>	<b>958.138</b>	<b>4,9</b>
Administrazioa	8.700.995	66,9	597.197	24,1	11.144	0,3	4.430	0,7	9.313.766	47,7
Teknologia berriak	-	-	600.000	24,2	14.958	0,4	-	-	614.958	3,2
Lan-arloa	-	-	30.000	1,2	51.725	1,5	22.200	3,3	103.925	0,5
